

11/2005 FORU ARAUA, MAIATZAREN 16KOA, OINORDETZA ETA DOHAINTZEN GAINKO ZERGARI BURUZKOA

(ALHAO, 60. zk., 05-5-27koa, gehigarria)

ZIOEN AZALPENA

Foru Arau honen xedea Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga arautzea da; izan ere, aurreko araua 1989ko apirilaren 24koa da.

Ordutik hona aldaketak gertatu dira eta horregatik 1989ko Foru Araua berrikusi eta eguneratzea erabaki da, aurreko arauketaren ildoari jarraituz.

Foru Arau honek hamabi kapitulu ditu, xedapen gehigarri bat, lau xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen.

I. kapituluak adierazten duenez, zerga honek pertsona fisikoek doan lortutako ondare-gehikuntzak kargatzen ditu. Aldi berean, eta arau orokorrekin batera, Zergaren aplikazio-eremua arautzen da.

II. kapituluak kalifikazio printzipioa eta Zergaren eragina arautzen ditu.

III. kapitulua zerga-egitateari buruzkoa da, eta IV. kapitulua, berriz, zergadunei eta erantzuleei buruzkoa.

V. kapituluak zerga-oinarria arautzen du eta bertan jaso dira proiektuko aldaketa nagusiak. Lehenengo eta behin, Zergari buruzko lehengo arauan zegoen figura bat kendu da, etxeko arreoarena. Testua, gainera, egokitu egin da, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan aurreikusitako moduan.

VI. kapitulua likidazio-oinarriari buruzkoa da. Ahaidetasun mailaren arabera lehen egiten ziren murriztapenak gutxitu egin dira, lau multzo izan beharrean bi baitira. Horren arrazoia salbuespenak izatea da.

VII. kapituluak zerga-zorra arautzen du. Kapitulu horretan Zergaren tarifak ehuneko 2 deflaktatu dira eta aurreikusitako murriztapenak portzentaje berean gehitu dira.

VIII. kapitulua sortzapenaz eta preskripzioaz ari da.

IX. kapituluan daude ordezipenari, fideikomisoari, ondasun-erreserbari, partaidetzari eta adjudikazio-gaundikinei buruzko arau bereziak, Foru Zuzenbide Zibileko espezialitateak, jaraunspena eta legatua zapuzteko eta beraiei uko egiteko arau bereziak, dohaintza bereziak eta metaketa.

Bukatzeko, X., XI. eta XII. kapituluetan betebeharrak formalak, Zergaren kudeaketa eta arau-hauste eta zehapenak arautzen dira.

I. KAPITULUA

IZAERA ETA APLIKAZIO-EREMUA

1. artikulua.- Izaera eta xedea.

Jaraunspen eta Dohaintzen gaineko Zerga zuzena eta subjektiboa da. Pertsona fisikoek lortzen dituzten doako ondare-gehikuntzak kargatzen ditu, Foru Arau honetan ezarritako moduan.

2. artikulua.- Zergaren aplikazio-eremua eta ordainarazpena.

1. [\(21\)](#) Foru arau honetan xedatzen dena ohiko betebeharrak pertsonalaren zioz aplikatuko zaie egoitza Espainian duten zergadunei honako kasu hauetan:

a) «Mortis causa» eskuraketetan, kausatzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

b) Bizitza aseguruaren onuradunek heriotzarako ezarritako kopurua jasotzen dutenean, aseguratuaren ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

c) Ondasun higiezinaren eta horren gaineko eskubideen dohaintzetan, ondasuna Araban egonez gero. Ondasun higiezina atzerrian egonez gero, dohaintzahartzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

Horri dagokionez, ondasun higiezinaren dohaintzat hartuko dira abenduaren 4ko 4/2010 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuan aipatzen diren baloreen doako eskualdaketa (dekretu horrek martxoaren 31ko 11/2003 Foru Araua, ondare eskualdaketa eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergarena, aldatzen du).

d) Gainerako ondasun eta eskubideen dohaintzetan, dohaintzahartzailearen ohiko egoitza Araban badago sortzapen egunean.

Aurreko a) eta b) letretan azaltzen diren kasuetan, kausatzailearen egoitza atzerrian badago, foru arau honetan xedatzen dena aplikatuko da zergadunaren ohiko egoitza Araban egonez gero.

Aurreko a), b) eta d) letretan ezartzen dena gorabehera, baldin eta kausatzaileak, aseguratuak edo dohaintzahartzaileak aurreko bost urteetan, zergaren sortzapen egunetik zenbatuta, egunik gehienak lurralde erkidean eman baditu, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergari buruz lurraldean erkidean indarrean dagoen araudia aplikatuko da. Arau hori ez zaie aplikatuko Euskal Herriko Autonomia Estatutuko 7.2 artikulua araberako euskal herritartasun politikoari eutsi diotenei.

2. [\(21\)](#) Foru arau honetan xedatzen dena ohiko betebeharrak errealaren zioz aplikatuko zaie egoitza atzerrian duten zergadunei honako kasu hauetan:

a) Espainiako lurraldean dauden mota guztietako ondasunen eta eskubideen eskuraketetan, baldin eta, baliorik handieneko ondasunak eta eskubideak EAEn egonez gero, Arabako Lurralde Historikoan dauden, erabili ahal diren edo bete

behar diren ondasunen edo eskubideen balioa beste bi lurralde historikoetako bakoitzean dutena baino handiagoa bada.

b) Bizitza aseguruaren kontratuen ondorioz kopuruak jasotzen direnean, baldin eta kontratua egoitza Arabako lurraldean duen entitate aseguratzailer batekin edo lurralde horretan jarduten duten atzerriko entitate batekin egin bada.

Aurreko bi letretan ezartzen denari dagokionez, EAeko lurraldeko zatituzko dira:

1. EAEn dauden ondasun higiezinak.
2. EAEn dauden etxebizitzei, finkei, ustiatzei eta industria establezimenduei modu iraunkorrean lotutako ondasun higigarriak, eta, oro har, EAEn egon ohi direnak, nahiz eta zergaren sortzapenean handik kanpora badaude aldi batez.
3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako kasuetan Arabako Foru Aldundiak ordainaraziko du Zerga.
4. Baldin eta dokumentu batean dohaintza-emaile batek dohaintza-hartzaile bati ondasun edo eskubide batzuk dohaintzan ematen badizkio eta, aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aplikatuta, etekina Arabako Lurralde Historikoan eta beste zerga-administrazio baten menpeko lurralde batean gertatutako jo behar bada, Arabako Foru Aldundiak ordainarazi beharreko kuota hauxe izango da: eskualdatzen diren guztien balioari foru arau honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa dohaintzan emandakoen balioari aplikatuta sortzen dena.
5. Dohaintzak metatzen diren kasuetan, Arabako Lurralde Historikoari kuota hau dagokio: metatutako guztien balioari araudi honen arabera egokituko litzaiokeen batez besteko tasa eskualdatuta dauden ondasunen eta eskubideen balioari aplikatuta sortzen dena.

Ondorio horietarako, metatutako ondasun eta eskubide guztiak aurreko dohaintzetakoak eta oraingoan eskualdatutakoak dira.

6. Artikulu honetan xedatu denak ez du eragozten Espainiar Estatuak sinatu eta berretsi dituen edota atxikitzen zaien nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatutakoa.
7. Estatu Espainiarraren eta Euskal Administrazio Publikoaren atzerriko ordezkari eta funtzionarioak Zergaren kargapean egongo dira betebeharrak pertsonalagatik, foru arau honetan zehaztutako kasuetan, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko arauetan subjektu pasibo horientzat ezarritako baldintza eta egoera berdinetan.

3. artikulua.- Ohiko egoitza.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, pertsona fisikoek beren ohiko egoitza Araban dutela esan daiteke honako erregelok elkarren segidan aplikatu ahal badira:

Lehenengoa. Zerga sortzen den egunaren bezperan amaitzen den urteko egun gehienak Euskal Herrian emanik, datatik datara zenbatuta, Arabako Lurralde Historikoan beste lurralde historikoetako bakoitzean baino egun gehiagoan egotea.

Arabako egonaldia zenbatekoa izan den zehazteko, aldi baterako ausentziak konputatuko dira.

Besterik frogatu ezean, pertsona fisiko bat Arabako Lurralde Historikoan dagoela pentsatuko da ohiko etxebizitza bertan duen artean.

Bigarrena. Interesgune nagusia Arabako Lurralde Historikoan badu. Zergadun batek bere interes gehienak Araban dituela ulertuko da Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zerga-oinarriaren zatirik handiena Euskal Herrian lorturik, horren zatirik handiena Arabako lurraldean lortzen duenean, higidarrien kapitalaren errentak eta ondare-irabaziak eta egotzitako zerga-oinarriak kenduta.

Hirugarrena. Araban egotea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ondorioetarako aitortutako azken egoitza.

2. Aurreko idatz-zatiko bigarren erregela lehenengoan xedatutakoaren arabera ohiko egoitza non dagoen lurralde erkidean edo foralean ezin zehaztu denean aplikatuko da. Aurreko idatz-zatiko hirugarren erregela lehenengo eta bigarren arauak aplikatuta ohiko egoitza non dagoen ezin zehaztu denean aplikatuko da.
3. Egoitza Espainiako lurraldean duten pertsona fisikoak, lurralde horretan egutegiko urtean 183 egunetan baino gehiagotan ez daudenak, Euskal Herriko egoiliarrek izango dira, baldin eta bertan kokatuta badago beraien interes ekonomikoen edo enpresa edo lanbide jardueren gune nagusia edo basea.

Pertsona fisikoak, aurreko paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Herriko egoiliartzat hartzen direnean, Arabako Lurralde Historikoko egoiliar direla ulertuko da, baldin eta bertan egiten badituzte beren enpresa edo lanbide jarduera gehienak edo bertan badaude beraien interes ekonomiko gehienak.

4. Pertsona fisiko bat Espainiako lurraldeko egoiliarra dela uste bada, beraren ezkontidearen, legez bereizita ez badago, eta beraren menpeko seme-alaba adingabeen ohiko egoitza Arabako Lurralde Historikoan dagoelako, beraren ohiko egoitza Araban dagoela pentsatuko da. Uste horren aurkako frogak aurkez daitezke.
5. Zergaren zioz gutxiago ordaintzeko asmoarekin egiten diren egoitza-aldaketek ez dute eraginik izango.

II. KAPITULUA

ZERGAREN KALIFIKAZIO PRINTZIPIOA ETA LOTURA

4. artikulua.- Kalifikazio printzipioa.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga egindako egitatearen, egintzaren edo negozioaren izaera juridikoaren arabera eskatuko da, interesdunek eman dioten itxura edo izena kontuan hartu gabe. Horren baliozkotasuna uki dezaketen akatsak alde batera utziko dira.

5. artikulua.- Baldintzak izatea.

Baldin eta Zergaren kargapeko ondare-gehikuntza dakarren egintzak edo kontratuak baldintzaren bat bete behar badu, hura legeria zibilean dauden preskripzioen arabera kalifikatuko da. Baldintza hori etengarria bada, ez da Zerga likidatuko harik eta baldintza bete arte. Ondasunak erregistro publikoetan inskribatu ahal izango dira, baldin eta idazpenaren bazterrean likidazioaren gerorapena agerrarazten bada. Baldintza suntsiarazlea bada, Zerga eskatuko da, baldintza betez gero bidezkoa izan daitekeen itzulketa eragotzi gabe.

6. artikulua.- Eskualdatutako ondasunen lotura.

1. Eskualdatutako ondasun eta eskubideek, beraien edukitzailea edonor delarik ere, beraiek eskuratzea kargatzen duen Zerga likidatua edo likidatu gabea ordaintzeko erantzukizuna ekarriko dute, edukitzaile hori erregistroko agerbide publikoak babesturiko gainontzekoa ez bada edo, erregistratu ezin diren ondasun higigarrien kasuan, ondasunak industri edo merkataritza establezimenduan onustez eta titulu zuzenean eskuratu direla frogatzen ez bada.
2. Zerga-onura baten behin betiko eraginkortasuna zergadunak edozein baldintza gerora betetzearen menpe dagoen guztietan, eta jabaria zatituta egonik gerora hura bateratzeko likidazioa egin behar den kasuetan, bulego likidatzaileak inguruabar hori agirian agerrarazi behar du, agiria aurkezleari itzuli aurretik; eta Jabetzaren eta Merkataritzaren erregistratzaileek, bazterreko oharraren bitartez, ondokoa agerraraziko dute: eskualdatutako ondasunen zioz bidezkoak diren likidazioak ordaindu beharko direla, zerga-onura izateko baldintza betetzen ez bada edo jabaria bateratzen bada, Foru Arau honetan xedatutakoaren arabera.

III. KAPITULUA

ZERGA-EGITATEA

7. artikulua.- Zerga-egitate.

1. Ondokoak zerga-egitate izango dira:

- a) (19) Ondasunak eta eskubideak jarauntsiz, legatuz edo beste edozein oinordetza tituluz eskuratzea.

Jaraunspenaz eta legatuaz gain, honakook dira, besteak beste, oinordetza tituluak zerga honen ondoretarako:

- a') "Mortis causa" dohaintza.

- b') Oinordetzako kontratuak edo itunak, eragina noiz duten gorabehera.

Hala, zerga ondoretarako, ondasun eta eskubideen eskualdaketa duen oinordetza izendapena oinordetza titulutzat har dadin, ondasunen eta

eskubideen titularrak horien oinordetza agintzeko borondatea egiaztatu beharko da.

Zerga honen araudiari baimena ematen zaio kasu horiek zehazteko, hau da, oinordetza agintzeko borondatea dagoen edo ez dagoen zehazteko.

Oinordetza agintzeko borondatea azaldu ezean, eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza ituna "inter vivos" eta doako negozio juridikotzat hartuko da.

Ondasunak edo eskubideak edo horietariko batzuk berristen diren eta b') letrak aipatzen dituen kasuetan, zerga berriro ere sortuko da berrikusi beharreko ondasun eta eskubideei dagokienez, artikuluko honen 1. idatz zatiko b) letrak aipatzen duen kontzeptuagatik eta betiere beste zerga bat aplikagarria eza bada.

- c') Komisarioak testamendu ahalordea erabiltzetik datozen egintzak, direnak direlakoak.
- d') Herentzia baten oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunak, herentziaren kausatzailea bizirik dagoenean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tartekian araututakoak.

Oinordetza eskubide guztiei uko egiteko oinordetza itunetan, uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da, izendatzailea hil ondoren ere, ezertan eragotzi gabe oinordekoei legokiekeen tributazioa.

Oinordetza eskubideen zati bati uko egiteko itun baten ondorioz uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea bakarrik hartuko da oinordetza titulutzat honako kasuetan: eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunak aipatutakoetan, aurreko b') letrak zehaztutakoetan, alegia. Bestelakoetan "inter vivos" eta doako negozio juridikotzat hartuko da.

- e') Hildako kide edo enplegatuen senideei enpresek eta erakundeek orokorrean emandako kopuruak jasotzeko eskubidea eratzitzeko balio duten egintzak, haien modalitatea edo izena edozein izanik, baldin eta 1. idatz zati honen c) letran edo Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan berariaz xedatuta ez badago kopuru horiek jasotzeagatik zerga ordaindu beharra.
- b) [\(19\)](#) Ondasunak eta eskubideak dohaintzaz edo beste edozein doako eta "inter vivos" negozio juridikoz eskuratzea.

Doako eta "inter vivos" negozio juridikotzat hartuko da uko egileak ondasun eta eskubideak eskuratzea hirugarren baten herentziako oinordetza eskubideak xedatzearen ondorioz, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. zenbakiko lehen tartekian ezarritakoarekin bat.

- c) [\(15\)](#) Bizitza aseguruaren kontratuen onuradunek kopuruak jasotzea, baldin eta kontratugilea onuraduna ez bada, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 18. artikuluko a) letran berariaz araupetutako kasuetan izan ezik.

2. Aurreko idatz-zatian adierazi diren ondare-gehikuntzak, pertsona juridikoak eskuratzen dituztenean, ez daude Zerga honen kargapean eta Sozietateen gaineko Zergaren kargapean jarriko dira.

7 bis artikulua.- (19) (25) Kargarik gabeko kasuak.

Ez dira zerga honen mende egongo foru komunikazioa desegitean alargundutako ezkontidearen alde edo bizirik dagoen izatezko bikotekidearen alde komunikaziopeko ondasunen erdia ordaintzeko egiten diren adjudikazioak.

8. artikulua.- (11) (25) Ustezko zerga gaiak.

1. Kostu gabeko eskualdaketa gertatu dela pentsatuko da zerga erregistroetatik edo administrazioaren eskuetan dauden datuetatik ondorioztatzen bada pertsona baten ondarea murriztu dela eta, aldi berean edo geroago (baina foru arau honetako 27 .artikuluko preskripzioaldiaren barruan) horren pareko ondare gehikuntza izan duela ezkontideak, izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaide batek, adoptatzaile edo adoptatu batek, edo jaraunse edo legatu hartzaile batek.
2. Adingabe diren ondorengo ordezkarik gisa haien aurrekoek kostu bidez egiten dituzten eskuraketetan, ondorengoei kostu gabeko eskualdaketa egin zaiela pentsatuko da eta horren balioa eskualdatutako ondasun edo eskubideena izango da, salbu eta adingabearen ondarean eskuraketa egiteko nahiko baliabide edo ondasun egon direla eta xede horretarako erabili direla frogatzen denean.
3. Zerga ondorioetarako, ezkontideen, izatezko bikotekideen, aurreko eta ondorengo ahaideen, adoptatzaileen eta adoptatuen arteko dohaintzak ez dira egintzat hartuko frogatzen ez bada dohaintzahartzailearen ondare gehikuntza eta dohaintza emailearen ondare gutxitze baliokidea aldi berean gertatu direla.
4. Aurreko idatz zatietan aipatutako presuntzioak interesdunei jakinaraziko zaizkie, beren eskubideen aldeko alegazioak eta frogak aurkez ditzaten. Gero, behar den kasuetan, likidazioa igorriko da.

9. artikulua.- (15) Salbuespenak.

Honakoak zerga hau ordaindu beharretik salbuetsita egongo dira:

- a) Hiltzen direnean funtzionario aktibo zein pasiboek eta langileek sortuta baina hartu gabe uzten dituzten soldatak eta gainerako ordainsariak, eta enplegatzailearengandik hileta gastuetarako hartzen diren kopuruak.
- b) Bizitzaren gaineko aseguru-kontratuen zioz hartzen diren kopuruak, baldin eta beraiek hitzartzen badira izaera zibileko eta merkataritzako eragiketa nagusi baten estaldura gisa jarduteko. Salbuespen horren muga zor den kopurua izango da.
- c) (20) Jarduera ekonomikoaren finantzaketa bultzatzeko Europako funtsetako edo ekoizpen kapitalizazioa sustatzeko Europako funtsetako partaidetzen jaraunspen edo legatu bidezko eskuratzeko, partaidetza horiek martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauaren 11. artikuluan edo 12. artikuluan, kasuan kasukoan, ezarritako baldintzak betetzen badituzte, eta kausatzailearen ondarean egon badira Zerga sortzen den

egunaren aurreko urtebetean, gutxienez.

- d) [\(22\)](#) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluan ezartzen den kenkaria aplikatu ahal izan zaien entitateen akzioen edo partaidetzen jaraunspen bidez edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratzea, ondorio horietarako artikuluko horren 3. eta 7. apartatuetan xedatzen dena kontuan hartu gabe.

Aurreko paragrafoan xedatzen dena aplikatzeko, zergadunak Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko Foru Arauaren 90. artikuluko 6. apartatuan aipatzen den ziurtagiria aurkeztu beharko du.

- e) [\(25\)](#) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 56 quater artikuluan aipatzen diren akzioak, partaidetzak edo eduki ekonomikoko eskubideak jaraunspen bidez edo beste edozein oinordetza tituluren bidez eskuratzea.
- f) [\(26\)](#) 36 urtetik beherako zergadunen alde ezkontideak, izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaideek edo hirugarren gradura bitarteko alboko ahaideek (ahaidetasuna nolakoa den gorabehera: odol ahaideek, ezkontza bidezkoek, izatezko bikotearen, adopzioaren zein harrera iraunkorraren bidezkoek, arloko eskumena daukan administrazioaren aurrean formalizatu bada) eskudirutan egindako dohaintzak, haien helburua dohaintza hartzaileak ohiko etxebizitza jabetzan eskuratzea bada.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren pertsonen egindako dohaintzaren (edo dohaintzen) gehieneko zenbatekoa, dohaintza hartzaile bakoitzari letra honetan xedatutakoa aplikatzeko eskubidea ematen diona, 30.000,00 eurokoa izango da.

Letra honetan aipatzen den salbuespena aplikatzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zerga honen autolikidazioa aurkeztea foru arau honen 38. artikuluko 8. apartatuan ezartzen den epealdian, eta hari dokumentu publiko edo pribatu bat eranstea, berariaz adierazten duena dohaintzan emandako zenbatekoa dohaintza hartzailearen ohiko etxebizitza erosteko dela. Horrekin batera, eskualdaketaren frogagiria ere aurkeztu beharko da.

b) Dohaintzahartzaileak 2 urteko epealdiaren barruan eskuratu behar du ohiko etxebizitza, dohaintzaren egunetik zenbatzen hasita, edo, ondoz ondoko dohaintzak egonez gero, lehen dohaintzaren egunetik hasita.

f) letra honetan xedatzen denaren ondorioetarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 87. artikuluko 8. apartatuan ezartzen dituen baldintzak betetzen dituen.

IV. KAPITULUA

ZERGADUNAK ETA ERANTZULEAK

10. artikulua.- Zergadunak.

Honako hauek zergadunak dira eta Zerga ordaindu beharko dute:

- a) "Mortis causa" eskuraketetan, kausadunak.
- b) Dohaintzetan eta doan egiten diren gainerako "inter vivos" eskualdaketetan, dohaintza-emailea edo onuraduna.
- c) Bizitza-aseguruetan, onuradunak.

11. artikulua.- Egozketaren araubidea.

Sozietate zibilek, jaraunspen banatugabeen hartzaileek, ondasun-erkidegoek eta nortasun juridikorik ez duten eta ekonomi batasuna edo banatutako ondarea osatzen duten gainerako erakundeek doan eskuratutako ondasunak eta eskubideak bazkideei, jaraunslerei, erkideei eta partaideei egotziko zaizkie, hurrenez hurren, kasu bakoitzean aplikatu ahal diren arau edo itunen arabera. Hala ere, kontuan hartuko da aurreko 7. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoa. Administrazioak sinesgarriri horien berririk ez badaki, haiei zati berdinetan egotziko zaizkie.

12. artikulua.- Erantzule subsidiarioak.

1. Sorospidez, ondoren aipatuko direnek Zerga ordaintzearen erantzukizuna izango dute, emandako ondasunari dagokion kuotaren zatian, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasota dauden erantzukizun solidarioaren gaineko arauak ezar daitezkeenean izan ezik:

- a) Finantza-bitartekariak, eta gordailuen, bermeen edo kontu korronteen "mortis causa" eskualdaketetan dirua edo gordailutatako baloreak eman dituzten edo eratutako bermeak itzuli dituzten gainerako erakunde, sozietate edo pertsonak.

Ondorio horietarako, ez da diruaren edo gordailutatako baloreen ematea izango, ez bermeen itzulketa ere, gordailuen, bermeen edo beharrezkoa den baloreen salmentaren emaitzaren kargura banku-txekeak igortzea, baldin eta helburu bakartzat Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, "mortis causa" eskualdaketa kargatzen duena, ordaintzea badu, eta txekea Arabako Foru Aldundiaren izenean egiten bada.

- b) Bizitza-aseguruen polizetan hizpatutako kopuruak ematen dituzten aseguru-konpainiak edo –erakundeak.

Ondorio horietarako, ez da aseguru-kontratuen kopuruaren ematea izango prestazioa kontura ordaintzea, horren helburu bakarra Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, prestazio horren hartukizuna kargatzen duena, ordaintzea bada, eta baldin egiten bada Arabako Foru Aldundiaren izenean luzatutako banku-txekea onuradunei emanda.

- c) Jaraunspenaren zati diren titulu-baloreak eskualdatzean, bitartekariak.

Ondorio horietarako, bitartekariak ez dira Zerga ordaintzearen erantzuleak izango baldin eta, jaraunslen aginduz, behar diren baloreak saltzen badituzte "mortis causa" eskualdaketa kargatzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga

bera ordaintzeko bakar-bakarrik, eta salmenta horretan lortutako prezioa Arabako Foru Aldundiaren izenean egindako banku-txekean ematen bazaie onuradunei.

[\(6\)](#) Aurreko letretan ezarritako zerga zorra Arabako Foru Aldundiaren laguntzaile diren erakundeen bitartez ere ordain daiteke.

2. [\(9\)](#)

V. KAPITULUA

ZERGA-OINARRIA

1. ATALA

ARAU OROKORRAK

13. artikulua.- Zerga-oinarria.

1. Hauxe da Zergaren zerga-oinarria:

- a) "Mortis causa" eskualdaketetan, kausadun bakoitzak eskuratzen duen zatiaren balio garbia, hau da, ondasun eta eskubideen benetako balioari hurrengo kapituluetan xedatutakoaren arabera kengarriak diren karga, zor eta gastuak kenduta ateratzen dena.
- b) Dohaintzetan eta horiekin parekatu daitezkeen "inter vivos" doako eskualdaketa guztietan, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbia, hau da, ondasun eta eskubideen benetako balioari hurrengo kapituluetan xedatutakoaren arabera kengarriak diren kargak eta zorrak kenduta ateratzen dena.
- c) Bizitza-aseguruetan, onuradun bakoitzak hartutako kopurua.

2. [\(17\)](#) [\(24\)](#) Foru arau honen 38. artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztu beharreko aitortenean edo autolikidazioan interesdunek zergapeko ondare gehikuntzako ondasun eta eskubide bakoitzaren benetako balioa adierazi behar dute. Aitortutako balioa egiaztatutako balioa baino handiagoa bada, aitortutakoa hartuko da kontuan, salbu eta foru arau honetako 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldean aipatzen diren eskuratzetan.

3. Benetako balioa zehazterakoan, Administrazioak egiaztatzeko duen ahalmena eragotzi gabe, jarraian azalduko diren arauak erabiliko dira. Ondarearen gaineko Zergari dagokionez ezarri diren balioespen-arauak ordezeko gisa soilik erabili ahal izango dira.

4. Hauek dira aurreko idatz-zatian aipatutako balioespen-arau zehatzak:

- a) Landa- eta hiri-ondasun higiezinak Arabako Foru Aldundiak berariaz ematen dituen arauari jarraituz balioetsiko dira. Arau horiek aldi behin eguneratuko

dira, balioak unean uneko egoera ekonomikoari egokitzeko. Balio horien eguneratzeak ez du zertan berdina izan Arabako Foru Aldundiak emango dituen arauetan jasotzen diren kasu, kontzeptu edo atal guztietarako.

Aurreko paragrafoan aipatutako arauak erabilia ateratzen den balioa gutxieneko balio zenbagarritzat hartuko da eta horren gainean egin beharko da aitortpena edo autolikidazioa.

Hala ere, zergadunak uste izaten badu gutxieneko balio zenbagarri hori benetako balioa baino handiagoa dela, agirian jarritako balioan oinarriturik egingo du aitortpena edo autolikidazioa.

Betiere Administrazioak benetako balioa egiaztatzeko ahalmena izango du, a) letra honetako goiko paragrafoetan xedatutakoa gorabehera.

- b) Ibilgailu automobilak, itsasontziak eta aireontziak balioesteko, Arabako Foru Aldundiak berriaz ezartzen dituen arauak erabiliko dira.
- c) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen guztizko balioaren proportzionala izango da: urtean % 2, eta gehienez % 70.

Aldi baterako gozamenaren balioa zenbatzeko ez dira kontuan hartuko urtebete baino gutxiagoko denbora tarteak; hala ere, urtebete baino gutxiagorako gozamena balioesteko, ondasunen balioaren % 2 zenbatuko da.

Biziarako gozamenaren balioa ondasunen balio osoaren % 70 dela joko da, gozamenaren hogen urte baino gutxiago baditu. Zenbat eta zaharragoa izan, orduan eta txikiagoa izango da balioa, hain zuzen ere, % 1 gutxiago urte bakoitzeko. Gutxieneko muga, betiere, balio osoaren % 10 izango da.

Jabetza soileko eskubidearen balioa kalkulatzeko gozamenaren balioetik ondasunen guztirako balioa kenduko da. Biziarako gozamena aldi baterako ere baldin bada, c) letra honetako goiko arauetan baliorik txikiena ematen dion araua aplikatuz balioetsiko da jabetza soila.

- d) Gozamena iraungitzen denean, eraketa-tituluen arabera eskatuko da Zerga.
- e) Erabili eta biztantzeko eskubide errealen balioa honela lortuko da: eskubide horien xede diren ondasunen balioaren % 75ari, kasuan kasu, aldi baterako edo biziarako gozamenaren balioespenari buruzko arauak aplikatuko zaizkio.
- f) Hipoteka, bahi eta antikresien balioa, berriz, bermatutako kapitalaren edo obligazioaren zenbatekoa izango da.
- g) Aurreko letretan sartu gabeko eskubide errealak balioesteko, horiek eraterakoan alderdiek itundu zuten kapitala, prezioa edo balioa hartuko da kontuan; baina Zergaren sortzapen egunean diruak duen legeko korritutasaren arabera urteko pentsioa edo errenta kapitalizaturik ateratzen den balioa handiagoa bada, hauxe hartuko da kontuan.
- h) Pentsioen zerga-oinarria lortzeko, pentsiook diruaren legeko korritutasaren arabera kapitalizatuko dira eta emaitzako kapitalek zati bat hartuko da, gozamenak balioesteko ezarritako erregelen arabera pentsiodunaren adinari dagokion zatia hain zuzen, pentsioa biziartekoa bada, edo pentsioaren iraupenari dagokiona, pentsioa aldi baterakoa bada. Pentsioaren zenbatekoa

moneta-unitatetan neurtzen ez bada, zerga-oinarria lortzeko, lanbide arteko gutxieneko soldataren urteko zenbatekoa kapitalizatu egingo da. Hain zuzen ere urte bati dagokion zenbatekoa kapitalizatuko da.

- i) Bigarren mailako merkatu ofizialen batean negoziatzen diren baloreen eskualdaketetan, baloreak eskuratzen diren eguneko kotizazio-balioa izango da zerga-oinarria, edo, horrelakorik ezean, aurreko hiruhilekoan baloreak azken aldiz negoziatu diren eguneko kotizazio-balioa.

(1) (24) Bigarren mailako merkatu ofizial batean negoziatzen ez diren balore tituluen eskualdaketetan, zerga oinarria eskualdatutako partaidetzen ondare garbiaren balioa izango da, eta hori eskualdaketa egin den eguna baino lehen itxitako azken ekitaldiko balantzetik ondorioztatuko da.

- j) Mailegu-hartzailearen berme pertsonala beste bermerik ez duten maileguetan, fidantzaz aseguraturakoetan, zor-aitorpeneko kontratuetan eta ordaindutako gordailuko kontratuetan, obligazioaren kapitala edo gordailatutako gauzaren balioa izango da zerga-oinarria. Kreditu-kontuetan, mailegu-hartzaileak benetan erabili duena izango da oinarria. Bahiz, hipotekaz edo antikresiz bermatutako maileguetan, goiko f) letran xedatutakoa beteko da.

14. artikulua.- Zerga-oinarria zehaztea.

Oro har, zerga-administrazioak zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehaztuko du zerga-oinarria. Salbuespen bakarrak zerga-oinarriak zeharka zenbatesteko arau erregulatzailaetan ezarritakoak izango dira.

2. ATALA

"MORTIS CAUSA" ESKURAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

15. artikulua.- (25) Ondasunen batuketa.

1. "Mortis causa" eskuraketetan, kausadun bakoitzak duen partaidetza zehazteko, uste izango da honako hauek osatzen dutela jaraunspen-ondarea:

- a) Heriotza baino urtebete lehenago arte oinordetzarenkausatzailearenak izan ziren mota guztietako ondasun eta eskubideak, ez baldin badago egiaztaturik froga fede-emaile bidez ondasun eta eskubide horiek hark eskualdatu zituela eta jaraunslea, legatu hartzailea, hirugarren mailarainoko ahaidea, edo horietako edozeinen edo kausatzailearen izatezko bikotekidea edo ezkontidea ez den pertsona baten eskuetan daudela. Izan ere, horiei eskualdatu bazaie, beraien zerga oinarrian sartuko da.

Uste hori indargabeturik geratuko da behar bezala frogatzen bada desagertutako en dez subrogatutako balio bereko eskudirua, ondasunak edo eskubideak jaraunspen-ondarearen barruan agertzen direla.

- b) Heriotzaren aurreko hiru urteetan kausatzaileak kostu bidez gozamenerako eskuratu dituen ondasun eta eskubideak; eta bitarte horretan jaraunsle, legatu hartzaile, hirugarren mailarainoko ahaide edo horietako edozeinen eta

kausatzailearen izatezko bikotekide edo ezkontideek jabetza soilez eskuratu dituzten ondasun eta eskubideak.

Uste hori indargabeturik geratuko da ondokoa behar bezala frogatzen bada: jabetza soilaren eskuratzailerak eskualdatzaileari dirua ordaindu ziola edo balio bereko ondasunak edo eskubideak eman zizkiola, jabetza soila eskuratzeko nahiko zirenak.

- c) Kausatzaileak heriotzaren aurreko lau urteetan eskualdatu dituen ondasun eta eskubideak, baldin eta beretzat gorde badu ondasun eta eskubide horien gozamina, edo eskuratzaileraren beste ondasun eta eskubide batzuen gozamina, edo bizi arteko beste edozein eskubide. Ez dira kontuan hartuko, oster, kausatzaileak bizi arteko errentako aseguruaren arloan legez diharduten entitateekin kontraturiko mota horretako aseguruak.

Uste hori indargabeturik geratuko da honakoa behar bezala frogatuz gero: jaraunspen-ondarean badagoela jabetza soila eskualdatzeagatik jasotako dirurik edo balio bereko bestelako ondasunik.

- d) Gordailatutako balore eta efektuak, haien ordezkagiriak endosatu badira eta endosatzailearen heriotza baino lehenago haiek berreskuratu ez badira edo endosua gordailuzainaren liburuetan jaso ez bada; baita ere, endosatu diren balore izendunak, baldin eta kausatzailearen heriotza baino lehenago transferentzia entitate jaulkitzailearen liburuetan jaso ez bada.

Horrela denik ez da iritziko baldin eta eskualdatutako ondasun edo efektuen balioaren prezioa edo baliokidetasuna saltzailearen edo lagatzailearen ondareari erantsi zaiolako eta bere jaraunspenaren inbentarioan Zergaren likidaziorako kontuan eduki beharrekoan agertzen delako behar adinako konstantzia badago, edo behar adinako moduan frogatzen bada balio edo efektuen berreskuraketa edo endosua liburuetan jasotzea ezin izan dela gauzatu kausatzailearen heriotza baino lehenago, horren eta endosuhartzailearen borondateatik at dauden arrazoiengatik. Paragrafo honetan xedatutakoa aurreko a), b) eta c) letretan ezarritakoaren kalterik gabe hartu behar da.

2. Aurreko idatz-zatiko c) eta d) letretan aipatu diren eskuratzailerak eta endosuhartzaileak legatu-hartzailetzat hartuko dira, baldin eta jaraunsele ez badira.
3. Baldin eta, artikuluko honetan xedatutakoaren arabera, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz eska daitekeen kuota Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren zioz lortuko zatekeena baino handiagoa bada, orduan azken zerga horren zioz ordaindutakoa kendu egingo da Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren zioz ordaindu behar den kopurutik.
4. Interesdunek uko egiten badiote artikuluko honetan ezarritako presuntzioen arabera ondasun edo eskubideren bat jaraunspen-ondarean sartzeari, orduan horren balioa zerga-oinarritik kanpo utziko da, harik eta sortutako auzia administrazio-bidean behin betiko ebatzi arte.
5. [\(10\)](#) Halaber, aplikagarriak izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko eta Ondarearen gaineko Zergari buruzko arautegietan ezarritako titulartasun edo titularkidetasun presuntzioak; bereziki, hauxe usteko da, kontrako frogarik ezean: kausatzaileak edozein kontratu zibil edo merkataritza kontraturen itzalpean beste titular batzuekin

batera eta haiengandik bereizi gabe gordailatu dituen ondasun eta baloreak titularkide horien artean hainbatu behar direla.

6. [\(19\)](#) Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunei dagokienez, artikulua honetan jasotako epeak zenbatzeko erreferentziatzen hartuko da eskualdaketa egiten den unea, betiere artikulua horretan jasotako ezarpenak aplikatze aldera.

16. artikulua.- Karga kengarriak.

Betikoak, aldi baterakoak edo ludigarriak diren zama edo kargak bakarrik kendu ahalko dira ondasunen benetako balioetik, baldin eta ondasunen gainean zuzenean ezarrita agertzen badira eta haien kapitala edo balioa benetan urritzen badute; esate baterako, zentsuak eta pentsioak. Ez dira horrelakotzat hartuko eskuratzailerari betebeharrak pertsonala ekartzen dioten kargak eta eskualdatutakoaren balioa gutxitzen ez dutenak, hala nola hipotekak eta bahiak; hala ere, horien bidez bermatzen diren zorrak kendu ahal izango dira, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzak betez gero.

Aurkezten diren agirietan ez bada berariaz azaltzen pentsio, karga kengarrien iraupena, mugagabetzat joko da.

17. artikulua.- Zor kengarriak.

1. [\(18\)](#) [\(25\)](#) Heriotzaren ziozko eskualdaketa eta ondareko balio garbia zehazteko, oro har, oinordetzaren kausatzaileak uzten dituen zorrak kendu ahal izango dira, baldin eta badaudela egiaztatzen bada agiri publikoaren bitartez edo Kode Zibilaren 1227. artikuluko beharkizunak betetzen dituen agiri pribatuaren bitartez, edo beste era batera frogatzen badira. Ezin izango dira kendu zati alikuotaren legatu hartzaileen edo jaraunleen edo beren ezkontideen, izatezko bikotekideen, aurrekoen, ondorengoen edo neba-arreben aldeko zorrak, haiek jaraunspenari uko egiten badiote ere.

Administrazioak jaraunslerei agiri publikoan zorra berresteko eskatu ahal izango die; eta hartzekodunari, agertzeko.

2. Bereziki, kendu ahalko dira kausatzaileak Estatuaren, Arabako Foru Aldundiaren, autonomia erkidegoen eta beste foru aldundi edo toki korporazio batzuen zergen edo Gizarte Segurantzarekiko zorren zioz zor dituen kopuruak, jaraunspen-ondarearen administratzaileek, albazeek edo jaraunslerek ordaintzen dituztenak, nahiz eta hura hil eta gero igorritako likidazioei dagozkien zorrak izan.

18. artikulua.- Gastu kengarriak.

1. Heriotzaren ziozko eskuraketetan zerga-oinarria zehazterakoan honakoak kendu ahalko dira:
 - a) Testamentu-betetzea edo abintestatoa auzigai bihurtuz gero, auzian, jaraunslere guztien onurarako, testamentu-betetzearen edo abintestatoaren legezko ordezkarietan egiten diren gastuak, baldin eta autoen testigantza behar bezala frogatzen badira; eta arbitraje-gastuak, aurreko baldintza berak bete eta gastuak jarduketan testigantza egiaztatzen badira.

- b) Azken gaixoaldian, lurperaketa eta hiletan egindako gastuak, frogatzen baldin badira. Lurperaketa eta hileta gastuak, gainera, jaraunspen-ondareari dagokion neurrikoak izan beharko dira, tokian tokiko usadio eta ohituren arabera, eta muga horretaraino kendu ahal izango dira.
2. Ezin kenduko dira oinordetzan utzitako ondasuntzaren administrazioan egiten diren gastuak.

3. ATALA

"INTER VIVOS" DOAKO ESKUALDAKETEI BURUZKO ARAU BEREZIAK

19. artikulua.- Karga kengarriak.

Dohaintzetan eta horiekin pareka daitezkeen "inter vivos" doako eskualdaketa guztietan, eskuratutako ondasun eta eskubideen benetako balioari Foru Arau honetako 16. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituzten kargak kenduko zaizkio.

20. artikulua.- Zor kengarriak.

1. Dohaintzan emandako ondasun edo eskubideen baliotik, eta dohaintzarekin pareka daitezkeen "inter vivos" doako tituluen bidez eskuratutakoen baliotik, eskualdatutako ondasun edo eskubide horien gaineko eskubide errealez bermatuta dauden zorrak bakarrik kendu ahalko dira, baldin eta eskuratzailleak bere gain hartu badu, modu fede-emailean, bermatutako zorra ordaindu beharra, eta lehengo zordunari betebeharrak hori kendu bazaio.
2. Eskuratzailleak ez badu modu fede-emailean betebeharrak hori bere gain hartzen, ezin izango da zorraren zenbatekoa kendu; hala ere, zerga-kuotan zenbateko horri dagokion zatiaren itzulketarako eskubidea izango da, Zergaren preskripzio epea amaitu baino lehen zorra bere kontura ordaindu duela modu fede-emailean frogatzen badu. Zor hauek aurreko idatz-zatian ezarritako baldintzak bete behar dituzte.

3 BIS ATALA [\(19\)](#)

BIZI ASEGURUETARAKO ARAU BEREZIAK

20 bis artikulua.- Ezkontide batek edo izatezko bikotekide batek kontratatutako aseguruak, ezkontzaren edo izatezko bikotearen sozietatearen kontura.

1. [\(24\)](#) Asegurua ezkontide batek kontratatu badu irabazpidezko sozietatearen kontura eta onuraduna bizirik dirauen ezkontidea edo aurreko zein ondoko odol ahaidea bada, jasotako kopuru osoa sartuko da zerga oinarrian.
2. [\(25\)](#) Aurreko apartatuan xedatutakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie, baldin eta izatezko bikotea osatzen duten kideek ezarritako ondarearen araubide ekonomikoa aurreko apartatuan adierazitakoa bada.

3. [\(25\)](#) Era berean, artikulua honetako aurreko apartatueta ezarritakoa aplikatuko da: ezkontzaren edo izatezko bikotearen araubide ekonomikoa ondasunen foru komunikazioa bada -Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean araututa dago- eta aseguru hildako ezkontideak edo izatezko bikoteak irabazitako ondasunen edo harengandik datozen ondasunen kargura kontratatu bada, betiere, azken kasu horretan, ondasunen foru komunikazioa finkatu bada, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak 132. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4. ATALA

BALIOEN EGIAZTAPENA

21. artikulua.- Arau orokorrak.

1. Foru Arau honetako 13. artikuluan ezarri diren balioespen-arauen kalterik gabe, Administrazioak eskualdatzen diren ondasun eta eskubideen benetako balioa egiaztatu ahal izango du. Arabako Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako bideak erabiliko dira egiaztapena egiteko, eta gainera honako hauek:
 - a) Lurrei Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergaren ondorioetarako esleitutako balioak.
 - b) Eskuratutako ondasunek azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa, edo inguru nahiz barruti bereko beste ondasun batzuek, izaeraz eta egoeraz aurrekoen antzekoek, azken aldiz besterendu zirenean izan zuten salmenta-prezioa.
 - c) Aseguru-kontratueta ondasunei esleitutako kapitala.
 - d) Finka hipotekatuak eskuratzen badira, hipotekaren ondorioetarako ezarri zaien balioa, hots, maileguaren printzipala.
 - e) Administrazioak bere esku dituen balantze, datu eta balioespenak, baldin eta zergadunak beste zerga batzuen ondorioetarako onartu baditu. Betiere, Likidazio Bulegoak ahalmena izango du aktiboaren osagaiak biderik egokienetatik egiaztatzeke.
2. [\(13\)](#)
3. Egiaztapenaren bidez ateratzen diren balioak interesdunek aitortutakoak ez badira, interesdunek aurka egin ahal izango diete, balio berri horiek jasoko dituzten likidazioen aurka erreklamazioak aurkezteko epeetan. Balio berriek zerga-ondorioak ekarri ahal badizkiete zerga honen kargapeko zergadunak ez diren beste interesdun batzuei, banan jakinaraziko zaizkie, berraztertzeke errekurtsioa jarri edo bide ekonomiko-administratiboan inpugnatu ahal ditzaten, edo bestela, peritutasazio kontrajarriaren bidez zuzendu daitezela eskatu ahal dezaten. Erreklamazioa edo zuzenketa osorik edo zati batean onartzen bada, ebazpen horrek onura

ekarriko die baita Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapeko zergadunei ere.

4. [\(17\)](#) [\(24\)](#) Eskualdatutako ondasun edo eskubideen balio egiaztatua ezingo da izan eskualdaketaren aurretik kausatzaileak edo dohaintza-emaitzak ondarearen gaineko zergaren ondorioetarako egindako azken aitorpenean egotzi zaien balioa baino gutxiago, foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldean aipatzen diren eskuratzetan izan ezik.
5. [\(6\)](#) Balioak egiaztatzean ateratako emaitza zuzentzeko, interesdunek peritu tasazio kontrajarria eskatu ahal izango dute. Eskaera Administrazioak egiaztatutako balioa oinarritzat hartuta egindako likidazioaren aurka edo, bestela, aurreko 3. idatz zatian xedatutakoaren ondorioz, zerga honen kargapeko zergadun ez diren beste interesdun batzuek eskatzen badute tasazioa, balioen egiaztapenaren aurka bidezkoa den lehenengo errekurtsoren edo erreklamazioaren epealdian aurkeztu behar da.

Interesdunak uste badu jakinarazpenean ez direla zehazten behar bezala aitortutako balioak aldatzeko kontuan eduki diren datuak eta arrazoiak, eta hori salatzen badu berraztertzeko errekurtsoran edo erreklamazio ekonomiko-administratiboan, peritu tasazio kontrajarria sustatzeko eskubidea beretzat gordeta, aurreko paragrafoan aipatutako epealdia errekurtsora edo erreklamazioa ebazten duen erabakia administrazio bidean irmo bihurtzen den egunetik aurrera zenbatuko da.

Perituak ez badatoz bat ondasun edo eskubideen balioari buruz eta Administrazioako perituak egindako tasazioaren eta interesdunak egindakoaren artean ez badago % 10etik gorako aldea eta 120.202,42 eurotik gorakoa, interesdunaren tasazioa hartuko da likidazioaren oinarritzat. Administrazioako perituak egindako tasazioak aurrean adierazitako mugaren gainetik gaintzen badu interesdunak egindakoa, Likidazio Bulegoak Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoaren arabera jardungo du. Hirugarren perituak egindako balioespenari ezin izango zaio inolako errekurtsorik jarri.

6. [\(6\)](#) Tasazio kontrajarria aurkezten bada edo zergapekoak, aurreko idatz zatian adierazi bezala, beretzat gordetzen badu hura sustatzeko eskubidea, egindako likidazioen emaitzaren sarrera eta haien kontra erreklamazioa aurkezteko epealdia etengo dira.

VI. KAPITULUA

LIKIDAZIO-OINARRIA

22. artikulua.- [\(14\)](#) [\(17\)](#) [\(18\)](#) [\(19\)](#) [\(23\)](#) [\(24\)](#) Likidazio-oinarria.

1. [\(25\)](#) Aurreko artikuluetan ezarritakoaren kalterik gabe, "mortis causa" eskuraketetan edo beste edozein oinordetza tituluren bidezko eskuraketetan, likidazio oinarria

kalkulatzeko, ahaidetasun graduen arabera murrizketak aplikatu behar zaizkio zerga oinarriari; hona murrizketak:

0 taldea: ezkontideak, izatezko bikotekideak, aurreko zein ondoko lerro zuzeneko odol ahaideak edo adoptatuek edo adoptatzaileek egindako eskuraketak; 400.000,00 euro.

I. taldea: bigarren eta hirugarren mailako alboko odol ahaideek eta ezkontza bidezko ondoko eta aurreko ahaideek egindako eskuraketak, izatezko bikotea eratzearen ondoriozkoak barne; 38.156,00 euro.

II. taldea: laugarren mailako alboko ahaideen, ezkontza bidezko bigarren eta hirugarren mailako alboko ahaideen eta urrunagoko ahaideen eta arrotzen eskuraketak; ez dago txiki penik.

Legez ezindua direnek egindako eskuraketetan (ezintasun gradua, indarreko legerian ezartzen den baremoaren arabera, ehuneko 33 eta ehuneko 65 artekoa dela) 56.109,00 euroko murrizketa aplikatuko da.

Murrizketa 176.045,00 eurokoa izango da, aurrean aipatutako arautegiaren arabera, ezintasuna ehuneko 65koa edo hortik gorakoa dutenentzat; edo mendetasun arina (I. gradua) edo handiagoa dutenentzat, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren eta apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuak - abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoak, ezarritako mendetasuna baloratzeko baremoa onartzen duenak- xedatutakoaren arabera. Inolaz ere ezin izango da murrizketa ezarri aldi berean bi kontzeptuengatik.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaz gainera, pertsona horiei arau hauek aplikatuko zaizkie.

a) 1. apartatu honen lehen paragrafoan aipatzen den murrizketaren ordez, ahaidetasun gradua gorabehera, 38.156,00 euroko murrizketa aplikatuko da, eta kopuru horri 4.770,00 euro gehituko zaizkio kausadunari hogeita bat urte betetzeko falta zaion urte bakoitzeko. Guztira, murrizketaren zenbatekoa ezin da izan 119.930,00 euro baino gehiago.

b) Foru arau honen 24. artikuluan aipatzen den I. tarifa aplikatuko da.

Aurreko hiru paragrafoetan xedatutakoa ez zaie aplikatuko 0 taldearen barruan egonik legez ezindua edo mendekoak diren pertsonen, haien ezintasun edo mendetasun maila edozein dela ere.

2. Bizitza aseguru dela eta jasotzen diren diru kopuruen eskuraketetan, likidazio oinarria kalkulatzeko, zerga oinarriari honako murrizketa hau aplikatu behar zaio (kasuan kasukoa aseguruaren kontratatzailearen eta onuradunaren ahaidetasunaren arabera):

a) 0 taldekoa izanez gero, 400.000,00 euro.

b) I. taldekoa izanez gero, ehuneko 50koa, 200.000,00 euro gehienez.

c) II. taldekoa izanez gero, ehuneko 10koa, 40.000,00 euro gehienez.

Hala ere, aseguru kolektiboetan edo enpresek beren enplegatuentzat kontraturiko aseguruetan, aurreko murrizketak aseguratuaren eta onuradunaren arteko ahaidetasunaren arabera aplikatuko dira.

3. Terrorismo ekintzen ondoriozko bizitza aseguruetan eta nazioarteko misio humanitario eta bake misio publikoetan egiten diren zerbitzuetan ehuneko 100eko murriztapena aplikatuko da.

Murrizketa hau onuradun izan daitezkeen guztiei aplikatuko zaie.

4. Dohaintzaren edo horrekin pareka daitezkeen tituluen bidezko eskuraketetan, likidazio oinarria, betiere, zerga oinarria bera izango da.

5. (25) Baldin eta kausatzailearen ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurrekoek zein ondorengoek, adoptatuak zein adoptatzaileek edo laugarren gradura arteko albo ahaideek (jatorria odolkidetasuna, ezkontza ahaidetasuna, izatezko bikotea eratu izana zein adopzioa izan daiteke) "mortis causa" edo beste edozein oinordeko tituluren bidez eskuratzen badute pertsona bakarreko enpresa bat, negozio profesional bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 6. artikuluaen batetik seira arteko apartatuetan arautzen duen salbuespena aplikatu ahal zaion entitate partaidetzaren bat edo haien gaineko gozamen eskubideren bat, bada, orduan, halako eskuraketei zerga oinarriaren ehuneko 95eko murrizketa aplikatuko zaie, betiere eskuraketak bere hartan irauten badu kausatzailea hil ondoko bost urteetan (salbu eta eskuratzaila epe horretan hiltzen bada edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada).

Kausatzailea bizi bitartean eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen ondorioz izandako eskurapenetan, aurreko paragrafoak aipatutako bost urteko epea zenbatuko da eskualdaketa egiten den unetik aurrera.

Halaber, murrizketa hori aplikatzekoa izango zaio hala pertsona bakarreko enpresa baten, lanbide negozio baten edo idatz zati honen lehenengo paragrafoan aipatutako entitateetako partaidetzaren baten gaineko gozamen eskubideen eskuraketari, nola gozamen hori iraungitzearen ondorioz sortutako eskubide ekonomikoen eskuraketari, baldin eta heriotzaren ondorioz eskuratzailak jabari osoa finkatzen badu edo gozamena iraungitakoan zor diren eskubideak kasuan kasuko enpresa, negozio edo entitatearen partaidetza gisa jasotzen baditu.

Iraupenaren baldintza betetzen ez bada, egindako txikipearen ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta dagozkion berandutze interesak ordaindu beharko dira.

6. Etxebizitzaren jabari osoa, gozamena, jabetza soila, azalerako eskubidea edo erabiltzeko eta bertan bizitzeko eskubidea doan eskuratzen bada, "inter vivos" edo "mortis causa", eta eskuratzaila etxebizitza horretan eskualdatzailearekin bizi izan bazen eskualdaketa gertatu aurreko bi urteetan, eskuraketa horrek ehuneko 95eko murrizketa izango du etxebizitzari dagokion zerga oinarrian, 212.242,00 euroko mugarekin.

Bizikidetasunari buruzko baldintza Zuzenbidean onartzen den edozein frogabide erabiliz frogatu ahal izango da.

7. (25) Banako enpresa bat, negozio profesional bat edo entitate bateko partaidetza "inter vivos" eskuratzen badu ezkontideak edo izatezko bikotekideak, aurreko edo ondorengo ahaide batek, adoptatu edo adoptatzaile batek edo eskualdatzailearen laugarren gradura arteko alboko ahaide batek (ahaidetasunaren jatorria hauetakoren bat izan daiteke: odolkidetasuna, ezkontza, izatezko bikotearen eraketa edo adopzioa) eta eskuraketa salbuetsita badago Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 6. artikuluaen batetik seira arteko apartatuetan arautzen denaren arabera, zergaren

oinarriari ehuneko 95eko murrizketa aplikatu ahal izango zaio, honako baldintza hauek betez gero:

a) Dohaintza emaileak hirurogei urte edo gehiago izatea edo ezintasun iraunkorreko egoeran egotea, dela absolutua dela baliaezintasun handia.

b) [\(26\)](#) Dohaintza emaileak zuzendaritza lanak egin izan baditu, eskualdaketaren unetik bi urte igarotakoan lan horiek egiteari eta haien ordainsariak jasotzeari uztea.

Horretarako, sozietatearen administrazio kontseiluko kidea izate hutsa ez da zuzendaritza funtzioen barruan sartuko.

c) Dohaintza hartzaileari dagokionez, eskuratutakoa mantendu beharko du eta Ondarearen gaineko Zergaren foru arauaren 6. artikulua araututako salbuespena egiteko eskubidea izan beharko du dohaintzaren eskritura publikoaren dataren ondoko bost urteetan zehar, aldi horren barruan hiltzen denean edo enpresa edo entitatea konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen denean izan ezik. Halaber, dohaintza hartzaileak ezin izango du egin zuzenean edo zeharka eskuraketa balioa nabarmen murriztu dezakeen xedapen egintzarik ez sozietate eragiketarik.

Apartatu honetan aipatzen diren baldintzetako bat betetzen ez bada, aplikatutako murrizketaren ondorioz ordaindu gabe geratu den zerga zatia eta beraren berandutza interesak ordaindu beharko dira.

8. [\(23\)](#) Aurrekoek zuzeneko ondorengoan alde edo adoptatzaileek adoptatuen alde eskudi-rutan egiten badute dohaintza hartzaileek jarduera ekonomiko bati ekiteko, dohaintzaren kuota ehuneko 95 murriztuko da.

Gehienez, aurreko paragrafoko murrizketa 50.000,00 euroko zenbatekoari aplikatuko zaio.

Aurreko paragrafoko gehieneko zenbatekoa eskudirutan dohaintza bakar bat eginez gero zein zenbait dohaintza aldi berean edo jarraian eginez gero aplikatuko da (aldi berekoak eta jarraikoak metatu egingo dira), aurreko edo adoptatzaile berak zein batzuek egin. Jarraiko zenbait dohaintza eginez gero, apartatu honetan arautzen den murrizketa, adierazitako mugarekin, murrizketa aplikatu ahal den lehen dohaintzaren aurreko sei hiletan egindakoei baino ez zaie aplikatuko.

Apartatu honetan arautzen den murrizketa aplikatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

a) Dohaintza hartzaileak jarduera ekonomikoa egiteko behar diren langileak eta baliabide materialak eduki behar ditu, eta jarduera hori pertsonalki eta zuzenean egin behar du.

b) Dohaintza hartzaileak behin baino ezin aplikatu izango du apartatu honetan arautzen den murrizketa.

c) Dohaintza hartzaileak dohaintza egiten den egunean daukan ondare garbia (foru arau honetan ezartzen diren arauekin bat etorritik kalkulatu) ezin da izan 200.000,00 euro baino gehiago. Hori dela-eta, ondare garbian ez dira sartuko ohiko etxebizitza ez jarduera ekonomikoa egiteko erabiltzen diren ondare elementuak.

d) Dohaintza eskritura publikoan formalizatu behar da, eta hori dirua ematen denetik hilabete pasatu baino lehen egiletsi behar da, edo, bestela, zerga administrazioari

aurkeztutako dokumentu pribatuan. Batera zein bestera, berariaz adierazi behar da dohaintza hartzaileak dohaintzako dirua apartatu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituen jarduera ekonomiko bati ekiteko baino ez duela erabiliko. Gainera, dohaintza emailearen eta dohaintza hartzailearen arteko transferentzia aurkeztu behar da.

e) Jarduera ekonomiko bati ekin zaiola onartzeko, ezinbestekoa da jarduera ekonomiko berria modu errealean eta eragingarrian agertzea, eta jarduera hori lehen beste modu batean edo beste titulartasun batekin egina ez izatea.

f) Jarduera ekonomikoa urte osoan egin behar da. Beraz, sasoiko edo asteburuetako jardueretan ezin da aplikatu murrizketa.

g) Jarduera ekonomikoari dohaintza formalizatzen denetik sei hilabete pasatu baino lehen ekin behar zaio.

h) Jarduera ekonomikoa ezin da izan ondare higigarria edo higiezina kudeatzea.

Gainera, apartatu honetan arautzen den murrizketa aplikatzeko, ezinbestekoa da dohaintza hartzaileak jarduera ekonomikoa gutxienez bost urtez egitea; gainera, aldi horretan aurrean aipatutako baldintzak bete behar dituzte, aldi horretan hiltzen ez bada.

Apartatu honetan ezartzen diren baldintzak betetzen ez badira, egindako murrizketaren ondorioz ordaindu ez den kopurua eta horri dagozkion berandutze interesak ordaindu behar dira.

VII. KAPITULUA

ZERGA-ZORRA

23. artikulua.- Likidazioari buruzko arauak.

1. [\(18\)](#) Heriotzaren zioz edo "inter vivos" egindako eskuraketetan, kausatzailearen edo dohaintza emailearen eta kausadunaren edo dohaintza hartzailearen arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da Zerga.

Kausadunak ezagunak ez badira, ahaide ez direnen arteko oinordetzari dagokion tarifaren arabera likidazioa egingo da. Hala ere, bidezkoa den itzulketa egin ahalko da, kausadunak nortzuk diren jakiten denean.

2. Bizitza-aseguruen zioz hartutako kopuruak likidatzeko, heriotzaren ziozko eskualdaketetan aplikatu beharreko tarifa bera aplikatuko da eta jaraunspen-ondasuntza osatzen duten ondasunak eta eskubideak bereizi egingo dira.

Bizitza-aseguruengatik, kontratatzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko da Zerga. Enpresek beren enplegatuentzat kontratatutako aseguruengan edo aseguru kolektiboetan, kontuan hartuko da aseguruaren eta onuradunaren arteko ahaidetasun maila.

3. [\(11\)](#) Ondasunak eta eskubideak dohaintza bidez edo dohaineko beste edozein negozio juridiko dela bide inter vivos eskuratzen badira ondorengo ahaideen edo adoptatuen alde, ondasunok edo eskubideok aurreko bost urteetan modu berean eskuratu ondoren beste ondorengo edo adoptatu baten dohaintza baten bidez edo inter vivos dohaineko negozio juridiko baten bidez, eragiketa horren gaineko karga finkatzeko kontuan edukiko da lehenengo dohaintza emallearen eta azken dohaintza hartzailearen arteko ahaidetasuna, eta behar den kasuetan lehenengo dohaintzaren gaineko kuota deskontatuko da.
4. [\(19\)](#) Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. artikuluan araututako eskubideen xedapenen ondoriozko eskubide eta ondasunen eskuraketak izendatzailearen eta izendatutakoaren ondorengoaren arteko ahaidetasun mailaren arabera ordainduko dira.
5. [\(19\)](#) Ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 100. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorriz, hirugarren baten herentziaren oinordetza eskubideak xedatzearen ondoriozko uko egitearen onuradunaren eskubide eta ondasunen eskuratzea hirugarren hori hiltzen denean ordainduko da, xedapenaren onuradunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera, eta, halaber, hala badagokio, uko egileari emandako eskubide eta ondasunen balioa kenduko da, hori guztia ematen diren unean baloratutakoaren arabera.

24. artikulua.- [\(15\)](#) [\(24\)](#) Kuota.

Zergaren kuota osoa kalkulatzeko, aurrean esandako moduan kalkulaturiko likidazio oinarriari jarraian ageri diren tarifetatik edo tasa finkoetatik egokia dena aplikatuko zaio, kasuan kasukoa foru arau honen 22. artikulua 1. apartatua zehazten diren ahaidetasun mailen arabera eta apartatu horretan bertan aipatzen diren mendekotasun edo desgaitasun graduetakoa bat onartuta daukatela frogatzen duten pertsonen buruz xedatzen denari jarraikiz.

Tasa finkoa.

Aplikazio eremua: foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko 0 taldea. Ehuneko 1,5eko zerga tasa aplikatuko da.

I. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatua aipatzen diren mendekotasun edo desgaitasun graduetakoa bat onartuta daukatela frogatzen duten pertsonak.

Likidazio oinarria		Kuota	Tasa marjinala
Euro	Euro	Euro	(ehunekoa)
0,00	9.086,00	0,00	3,80
9.086,01	27.261,00	345,27	5,32
27.261,01	45.431,00	1.312,18	6,84
45.431,01	90.850,00	2.555,01	8,36
90.850,01	181.706,00	6.352,03	10,64
181.706,01	454.259,00	16.019,11	13,68
454.259,01	908.518,00	53.304,36	16,72
908.518,01	2.271.297,00	129.256,47	21,28
2.271.297,01	Hortik gora	419.255,84	26,60

II. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko I. taldea.

Likidazio oinarria		Kuota	Tasa marjinala
Euro	Euro	Euro	(ehunekoa)
0,00	9.086,00	0,00	5,70
9.086,01	27.261,00	517,90	7,98
27.261,01	45.431,00	1.968,27	10,26
45.431,01	90.850,00	3.832,51	12,54
90.850,01	181.706,00	9.528,05	15,58
181.706,01	454.259,00	23.683,42	19,38
454.259,01	908.518,00	76.504,19	23,18
908.518,01	2.271.297,00	181.801,42	28,50
2.271.297,01	Hortik gora	570.193,44	34,58

III. tarifa.

Aplikazio eremua: Foru arau honen 22. artikulua 1. apartatuko II. taldea.

Likidazio oinarria		Kuota	Tasa marjinala
Euro	Euro	Euro	(ehunekoa)
0,00	9.086,00	0,00	7,60
9.086,01	27.261,00	690,54	10,64
27.261,01	45.431,00	2.624,36	13,68
45.431,01	90.850,00	5.110,01	16,72
90.850,01	181.706,00	12.704,07	20,52
181.706,01	454.259,00	31.347,72	25,08
454.259,01	908.518,00	99.704,01	29,64
908.518,01	2.271.297,00	234.346,38	35,72
2.271.297,01	Hortik gora	721.131,04	42,56

25. artikulua.- Nazioarteko zergapetze bikoitzagatiko kenkaria.

Zerga honen kuota osoari honako bi kopuru hauetatik txikiena kenduko zaio:

- a) Zerga honek kargatzen duen ondare-gehikuntzak atzerrian ere antzeko karga duelako atzerrian benetan ordaindu den zenbatekoa.
- b) Espainiatik kanpo dauden ondasunei edo Espainiatik kanpo erabil daitezkeen eskubideei dagokien ondare-gehikuntzari zerga honen batez besteko tasa benetako aplikatuta ateratzen den kopurua, baldin eta atzerrian antzeko zerga batek kargatu baditu.

Batez besteko tasa benetako kalkulatzeko, eragiketa hau egingo da: tarifa aplikatuta ateratzen den kuota zati likidazio-oinarria, bider 100. Batez besteko tasa bi hamartarrekin emango da.

VIII. KAPITULUA

SORTZAPENA ETA PRESKRIPZIOA

26. artikulua.- (19) Sortzapena.

1. Heriotzaren ondoriozko eskuraketetan eta bizi aseguruetan, kausatzailea edo aseguruduna hiltzen den egunean sortuko da zerga, edota absentearen heriotza adierazpena irmo bihurtzen denean, Kode Zibilaren 196. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunen kasuan eta Foru Arau honen 7.1.a) artikuluan uko egiteko definitzen diren oinordetza itunen kasuan, izendatzailea bizirik dagoela gertatuko da zergaren sortzapena, hain zuzen ere eskualdaketa egiten denean."

2. "Inter vivos" doako eskuraketetan, egintza edo kontratua egiten den egunean sortuko da zerga.

Foru arau honen 7.1.a) artikuluan ezarritako salbuespenetan eta 7.1. artikuluko bigarren paragrafoan ezarritakoaren ondorioz "inter vivos" negozio juridikotzat jotzen diren ondasun eta eskubide eskuraketetan, eskualdatzea gertatzen den egunean sortuko da zerga.

3. Baldintza, epemuga, fideikomiso edo beste edozein muga dagoelako, eraginkortasuna etenik daukaten ondasun eskuraketei dagokienez, aipaturiko mugak desagertzen diren egunean gauzatu direla ulertuko da beti.

4. Gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen bidez gauzatzen diren herentzietan, zerga hala sortuko da:

a) Gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitzen ez dituen ondasun eta eskubideen eskuraketetan, zergaren sortzapenari buruzko arau orokorraren arabera, hau da, artikulua honetan goragoko idatz zatietan azaltzen den arau orokorraren arabera.

b) Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitutako ondasun eta eskubideei dagokienez, zerga noiz sortzen den zehazteko, ondoko kasu hauek bereizi behar dira:

1. Ondasun edo eskubideen eskuraketaren kausa gozamendun ahaldunari edo komisarioari eraxkitako xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea baliatu izana bada, (edo haiek esleituta eduki dezaketen beste edozein ahalmen baliatu izana, horrela zerga honen zerga egitatea sortzen bada), zerga sortuko da ahalorde edo ahalmen hori osorik edo zati batean baliatzen den egunean.

2. Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitzen dituzten ondasun edo eskubideen eskuraketetan, baldin eta xedatzeko ahalmena edo testamentu ahalordea iraungiak badira haiek osorik edo zati batean baliatu aurretik, zerga sortuko da ahalmena edo ahalordea iraungitzea dakarren zirkunstantzia izaten den egunean.

3. Gozamen ahalduna badago, eta, testamentu ahalordea egonez gero, ahalordea baliatzen ez den bitartean pertsona jakin batek jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien edo horietako batzuen gozamenerako eskubidea badu, gozamenerako eskubideari dagokion Zerga sortuko da gozamena eratu duena hiltzen den egunean edo, hura falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den egunean, Kode Zibileko 196. artikulua araberera.

5. Izendatzailea bizirik dagoela izendatutakoaren oinordetza eskubideak, "inter vivos" edo "mortis causa" egintzen bidez, doan xedatzen direnean, ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoak, bere 106. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, zerga ez da sortuko izendatzailea hiltzen den egunera arte.

27. artikulua- (9) Preskripzioa.

1. (12) Administrazioak likidazioaren bitartez zerga zorra zehazteko duen eskubidea eta zergen arloko zehapenak ezartzeko ekimena bost urteren buruan preskribatuko dira.
2. Aurreko idatz zatian aipatzen den epea ondorengo egun hauetatik aurrera hasiko da zenbatzen:
 - a) Kostu gabeko inter vivos eskualdaketetan, autolikidazioa aurkezteko araututako epealdia amaitzen den egunean.
 - b) "Mortis causa" eskualdatzeen kasuan, dagokion autolikidazioa aurkezteko ezarri den luzapen epe arrunta bukatzen den egunetik aurrera.
 - c) Zehapenak ezartzeko ekimenaren kasuan, arau haustea egiten denean.
 - d) Atzerriko funtzionarioek egiletsutako eskriturei dagokienez, preskripzioaldia Espainiako administrazio bati aurkezten zaion egunean, Espainiak sinaturiko itun, hitzarmen edo akordio batean aldi hori zenbatzen hasteko beste moduren bat ezarri ezean.

IX. KAPITULUA

ARAU BEREZIAK

28. artikulua.- Ordezpena.

1. Ordezpen arruntetan, ordezkoari bakarrik eskatuko zaio Zerga, kontuan izanik kausatzailearekin norainoko ahaidetasuna duen, izendatutako jaraunsele kausatzailea baino lehenago hiltzen bada edo jaraunspena onartzerik ez badu. Jaraunspena onartu nahi ez badu, jaraunspenari uko egiten zaion kasuetarako xedatutakoa beteko da.
2. Ordezpen pupilar eta kuasipupilarretan, ordezkoari Zerga eskatuko zaio ordezpena egiten denean, ordeztutako ondorengoarekin norainoko ahaidetasuna duen kontuan izanik, eta azken horrek testamentugilea hil eta gero ordaindutakoa gorabehera.
3. Fideikomisozko ordezpenetan, Zerga eskatuko da izendapenean eta ordezpenetako bakoitzean, kausatzailearen eta izendatutako jaraunselearen edo ordezkoaren arteko ahaidetasun mailaren arabera. Fiduziariora eta fideikomisodunak, azkena izan ezik, gozamendun soiltzat hartuko dira, salbu eta "inter vivos" edo "mortis causa" egintzen bidez ondasunak xedatu ahal dituztenean; horrelakoetan jabari osoarengatik egingo da likidazioa. Jaraunselearen kausadunek, azken kasu horretan, beren kausatzaileak ordaindutako Zerga itzultzea eskatuko ahalko dute, jabetza soilari dagokion zatia alegia, baldin eta frogatzen badute ordezpenak ukitutako ondasunak testamentugileak izendatutako ordezkoari eskualdatu zaizkiola.

29. artikulua.- Fideikomisoak.

1. (8) Fideikomisoetan, likidazioa egin behar den epealdietan ez badago argi nor den jaraunsele fideikomisoduna, fiduziarioak arrotzen arteko jaraunspenatarako ezarritako tasen arabera ordainduko du, kausatzailearekin daukan ahaidetasuna gorabehera.
2. Aurreko idatz-zatian adierazitako moduan ordaintzen dena fideikomisodunaren onurarako izango da, ezaguna denean.
3. Likidazioa egiteko epeetan fideikomisoduna nor den jakiten bada, berak ordainduko du Zerga, kausatzailearekiko ahaidetasun mailari dagokion tarifaren eta eskuratutako ondasunen balioaren arabera.
4. Fiduziarioak, edo testamentugileak jaraunspena eskualdatzeko agindu dion pertsonak, jaraunspena osorik edo zati batean, aldi baterako edo hil arte lupertu ahal badu edo fideikomisozko jaraunseleari eman arte jaraunspeneko ondasunetatik ateratzen diren errenta edo produktuez baliatzeko ahalmena badu, gozamendun gisa ordainduko du Zerga, kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera.

Horrelakoetan, fideikomisodunak ere dagokion Zerga ordainduko du, ondasunez jabetzen denean, eta ez da beraren alde konputatuko fiduziarioak ordaindutakoa.

5. Fideikomisoetan, jaraunspeneko ondasunak jaraunse fiduziarioari jabetzan uzten bazaizkio, nahiz eta kargaren bat kentzeko betebeharra ere ezarri, Kode Zibileko 788. artikuluan adierazitako eran, jabetzako jaraunspenari dagokion Zerga likidatuko da, karga kenduta, kengarria izanez gero, eta jaraunseleari ezarritako kargaren onura jasotzen duenak Zerga ordainduko du, egintzari juridikoki dagokion titulu edo kontzeptuarengatik; onuraduna ezaguna ez bada, jaraunselek ordainduko du kontzeptu horri dagokion Zerga, baina gerora zilegi izango du hura deskontatu edo onuradunari ordainaraztea.

30. artikulua.- Ondasunen erreserba.

1. (19) Erreserbapeko ondasunen herentzian, Kode Zibileko 811. artikulua eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 118. artikulua arabera, erreserbagileak ordainduko du zerga, gozamenaren gisa, baina erreserba beren alde eratuta duten ahaide guztiak hiltzen badira edo ahaideok erreserbari uko egiteagatik erreserba iraungi egiten bada, jabetza soilari dagokion zerga ordaindu beharko du erreserbagileak.
2. Erreserba-gordetzaileak erreserbako ondasunak besterentzen baldin baditu, nahiz eta ustezko erreserba-hartzaile guztiak ados egon, ondorio fiskalarako erreserba iraungiztat joko da eta kontzeptu horri dagokion likidazioa egingo da.
3. (19) Kode Zibileko 968, 969, 979 eta 980. artikuluetan eta Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 120. artikuluan aipatzen diren erreserben kasuan, erreserbagileari likidatuko zaio zerga, ondasunen jabari osoa dela eta; nolahi ere, erreserba eragindako ondasunen jabetza soilari dagokion zatiagatik ordaindutakoaren itzulketa jasotzeko eskubidea izango du, egiaztatzen badu ondasunok erreserba hartzaileari eskualdatu dizkiola.
4. Dena dela, erreserba-hartzaileak Zerga ordainduko du ondasunak eskuratzen dituzenean, ondasunak utzi zituen pertsonarekin duen ahaidetasunaren arabera eta erreserba-gordetzailearekin duen ahaidetasuna gorabehera, baita honek, Kode Zibileko 972. artikuluaekin bat, hobekuntzarako ahalmena erabili duen kasuetan ere.

31. artikulua.- (19) Bestelako erakundeak.

1. Gozamenaren ahalduen kasuan edo gozamen ahalduaren edo testamendu ahalduaren bidez emandako herentzien komisarioen kasuan izan ezik, betiere eskuratzaileak ondasunak izateko ahalmena duenean, zerga jabetza osoan likidatuko da, betiere, hala badagokio, bidezko itzulketari kalterik egin gabe.
2. Ekainaren 25eko 5/2015 Legearen, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoan, araututa dauden komisario bidezko testamentuetatik eta testamentu ahalduetatik datozen gozamen eskubideak eraunduko dira horietarako Foru Arau honetan berriaz ezarritako arauen bidez.

32. artikulua.- Banaketa eta adjudikazio-gaindikinak.

1. (19) Heriotzaren ziozko oinordetzetan, direnak direla interesdunek egindako banaketak eta adjudikazioak, erabateko berdintasunez eta oinordetzari buruzko arauak betez egin direla pentsatuko da zergaren ondoretarako; berdina da

ondasunak lurraldearen baldintzarengatik edo beste edozein arrazoiarengatik Zergaren kargapean egotea edo ez. Horren ondorioz, balioak egiaztatzean gertatzen diren igoerak eskuratzaileen edo jaraunsteen artean hainbanatuko dira.

2. Baliteke ondasunak egiaztatzean balioak igotzea edo ondasunei loturarik eza aplikatu behar izatea. Horrelakoetan, ondasunok testamentugileak pertsona jakin bati berariaz uzten badizkio edo jaraunspenaz besteko kontzeptuan adjudikatzen badizkio, igoerek edo urripenek ondasunok eskuratzen dituenari bakarrik eragingo diote.
3. Adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira, Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan ezarritako araei jarraituz, baldin eta aldeak agertzen badira, aitortutako balioaren arabera, jaraunseei edo legatu-hartzaileei egindako adjudikazioetan, jaraunspen-tituluari dagokionez; halaber adjudikazio-gaindikinak likidatuko dira baldin eta jaraunsele edo legatu-hartzaileetako bati adjudikatutakoaren balio egiaztatua bere tituluaren arabera legokiokeen balioaren ehuneko 50 baino gehiago bada, salbu eta aitortutako balioak Foru Arau honetan dauden arauak aplikatuta aterako liratekeenak berak edo handiagoak direnean. Horri dagokionez, jaraunsele edo legatu-hartzaile bakoitzari dagokion balioetat hartuko da aurreko 1. idatz-zatian aipaturiko egiaztapenean lortutako balio-igoerak haien artean hainbanatuz ateratzen dena.
4. [\(17\)](#) Jaraunspena banatzearen ondorioz sortzen diren adjudikazio-gaindikinak likidatzean Ekonomia Itunean ezarritakoa bete beharko da.

33. artikulua.- [\(19\)](#) Gozamen ahaldun edo testamendu ahalorde bidez gauzatzen diren herentziak.

Gozamen ahaldun bat edo testamendu ahalorde bat dagoen herentzietan honako arauak beteko dira:

Lehenengoa. Gozamen ahaldunak edo testamendu ahalordeak ukitu eta ekainaren 25eko 5/2015 Legeak, Euskal Zuzenbide Zibilar buruzkoak, aipatutako ondasun edo eskubideei dagokienez, honakoa berezi beharra dago:

Bat. Gozamen ahalduna.

1. Gozamen ahalduna dagoenean, alde batetik, Zerga eskatuko zaio gozamen ahalduna duenari, kausatzailearen ondasun edo eskubideen gainean eman zaion gozamen eskubidearengatik. Hain zuzen ere:
 - a) Baldin eta testamentu ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarria egingo da, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.
 - b) Baldin eta testamentu ahalordean gozamina azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:
 - b.1) Likidazio bat kontura, Foru Arau honetako 26.4.b) artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den unean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko araei jarraituz.

b.2) Beste bat, erregularizaziokoa; honek sortzapena izango du gozamenak adjudikatuta daukan xedatzeko ahalmena agortzen duen xedapen egintza egiten duen unean, baldin eta xedatzeko ahalmena egintza bakarrean gauzatzen bada; edo gozamenak xedapen egintza bat egiten duen bakoitzean, baldin eta xedatzeko ahalmena hainbat egintzaren bitartez gauzatzen bada; edo bestela, gozamena beste edozein arrazoirengatik iraungitzen den unean. Bigarren likidazio hori aldi baterako gozamenari buruzko araei jarraituz egingo da. Hasierako datatzat, gozamena eratu duen kausatzailearen heriotzaren eguna hartuko da, edo bestela, gozamenaren eratzailea falta bada, hil delako adierazpena irmo bihurtzen den eguna, Kode Zibilaren 196. artikularen arabera, eta horretan konturako sarrera gisa zenbatuko da lehenengo likidazioan ordaindutakoa. Xedatzeko ahalmena hainbat egintzatan gauzatzen bada, erregularizazioko likidazio bakoitzean konturako sarreratzat zenbatuko da lehenengo likidazioko kuotaren zati bat, likidatzen den egintzan adjudikatutako ondasun edo eskubideei dagokiena.

Lehenengo idatz zati honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, Foru Arau honen 13. artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

2. Beste alde batetik, gozamen ahalduan, zerga jaraunsean aitoren bakoitzean exijituko da, bakoitza zergadunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera eta egintzan edo egilespenean esleitutako ondasun edo eskubideen guztirako zenbatekoa oinarritzat hartuta; likidazioa indarreko tarifa ondasunen edo eskubideen une horretako balioari aplikatuta egingo da eta, hala badagokio, artikulua honen bigarren arauan xedatutakoa aintzat hartu beharko da.

Bi. Testamentu ahalordea.

1. Testamendu ahalordean, zerga jaraunsean aitoren bakoitzean exijituko da, bakoitza zergadunaren eta kausatzailearen arteko ahaidetasunaren arabera eta egintzan edo egilespenean esleitutako ondasun edo eskubideen guztirako zenbatekoa oinarritzat hartuta; likidazioa indarreko tarifa ondasunen edo eskubideen une horretako balioari aplikatuta egingo da eta, hala badagokio, artikulua honen bigarren arauan xedatutakoa aintzat hartu beharko da.
2. Testamentu ahalordean pertsona jakin bati eskubidea ematen bazaio jaraunspeneko ondasun edo eskubide guztien gozamena edukitzeko testamentu ahalordea erabiltzen ez den bitartean, orduan gozamenari zerga eskatuko zaio kausatzailearen ondasun edo eskubideen gain eman zaion gozamen eskubidearengatik.

a) Baldin eta testamentu ahalordean pertsona jakin bati eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamenak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta.

b) Baldin eta testamentu ahalordean gozamena azkentzen bada ahalorde hori erabiltzen denean, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamenak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

b.1) Likidazio bat kontura, Foru Arau honetako 26.4.b) artikuluko 3. idatz zatian aipatzen den unean sortzapena izango duena, biziarteko gozamenari buruzko araei jarraituz.

b.2) Beste bat, erregularizaziokoa; honek sortzapena izango du komisarioak xedatzeko ahalmena agortzen duen xedapen egintza egiten duen unean, gozamenari eman zaion gozamen eskubidearen edukia osatzen duten ondasun eta eskubide guztiei dagokienez, baldin eta xedatzeko ahalmena egintza bakarrean gauzatzen bada; edo gozamenari xedapen egintza bat egiten duen bakoitzean, baldin eta xedatzeko ahalmena hainbat egintzaren bitartez gauzatzen bada; edo bestela, gozamenari eskubidea beste edozein arrazoiengatik iraungitzen den unean. Osteko likidazio hori aldi baterako gozamenari buruzko arauei jarraituz egingo da. Hasierako datatzat, gozamenari eratu duen kausatzailearen heriotzaren eguna hartuko da, edo bestela, gozamenaren eratzaila falta bada, hil delako adierazpena irimo bihurtzen den eguna, Kode Zibilaren 196. artikularen arabera, eta horretan konturako sarrera gisa zenbatuko da lehenengo likidazioan ordaindutakoa. Xedatzeko ahalmena hainbat egintzatan gauzatzen bada, erregularizazioko likidazio bakoitzean konturako sarreratzat zenbatuko da lehenengo likidazioko kuotaren zati bat, likidatzen den egintzan adjudikatutako ondasun edo eskubideei dagokiena.

Bigarren idatz zati honetan aipatutako gozamenak kalkulatzeko, Foru Arau honen 13. artikuluan biziarteko gozamenari eta aldi baterako gozamenari buruz ezarritako arauak aplikatuko dira.

Bigarrena. Jaraunsle adierazpenak egintza edo egilespen batean baino gehiagotan egiten badira, kausatzailearen ondasunak xedatzeko emandako ahalmena agortzen duen egintza edo egilespena egiten denean jaraunsleetako bakoitzari dagokion erregularizazioa egingo da, bidezkoa bada.

Hirugarrena. Testamentu ahalordea edo gozamen ahalordua erabiltzeko epea zehaztuta badago, ordea, konturako likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauekin bat egingo da, ahalordea edo ahalmenak erabiltzeko ezarritako dagoen gehieneko epearen arabera.

Aldi baterako gozamenaren arauei jarraituz kalkulaturako behin betiko likidazioa egingo da gozamen ahalordua edo testamentu ahalordea erabiltzeagatik edo hori iraungitzeko gainerako kariengatik jaraunsle direnen likidazioa egiten den unean.

Laugarrena. Artikulu honen aurreko arauetan ezarritakoa gorabehera, testamentu ahalordeetan ezkontide alargunari eman bazaio herentziako ondasunez bizi artean gozatzeko eskubidea, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, gozamenari kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera, eta biziarteko gozamenei buruzko arauak aplikatuta, testamentu ahalorde hori erabilia izanagatik ere.

33 bis artikulua.- (19) (25) Testamentu ahalordearen eta gozamen ahalorduen ahalmenen erabilera.

1. Baldin eta komisarioak, ezkontidearen alargunak edo izatezko bikotekidearenak testamentu ahalordea erabiltzen badu eta horren bidez ezkontza osteko ondasun erkidegoaren ondasun jakin bat -kausatzailearen heriotzak ondasun erkidego foralaren ezkontzaren araubide ekonomikoan eragindako sendotzearen ondorio dena- edo irabazpidezko sozietatearen ondasun jakin bat komisarioaren eta kausatzailearen ondorengo komun bati adjudikatzen badiu, baina herentzia banatu eta likidatu gabe, bada, orduan, ezkontide edo izatezko bikotekide alargunaren erdia dohaintza gisa likidatuko da eta beste erdia, kausatzailearena, oinordetza gisa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legeak 142. artikuluan ezarritakoa betetzen ez bada, artikulua horretan aipatzen diren ondasunak ezkontideari edo izatezko bikotekideari adjudikatzeko Foru Arau honetako 24. artikuluan ezarritako zerga tasa finkoaren erdian tributatu du.

2. Jaraunspen batean gozamen ahalduak edo testamendu ahalordeak ukitutako ondasun edo eskubideak eta Foru Zuzenbide Zibileko figura horiek ukitzen ez dituzten ondasun edo eskubideak batera daudenean, azken ondasun edo eskubide horiei dagokienez, zerga eskatuko da Foru Arau honetan ezarritako arau orokorren arabera.

Hala, testamendu ahalorde edo gozamen ahalduaren bidez gauzatzen diren oinordetzetan honako likidazio hauek egingo dira:

a) Lehenengoa, kausatzailea hil eta berehala, testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ez ukituriko herentziaren zenbatekoaz, zerga honen arau orokorrak aplikatuz.

b) Dagozkion bestelakoak, betiere erabilpen ahalordeak edo ahalmenak ukitutako jaraunspenaren zenbatekoaren gainean, behin ahalordea edo ahalmena osorik eta zatiz modu ezeztazinean erabili ondoren, edo erabilera ahalmena edo testamendu ahalordea iraungitzen diren kasuetan osorik edo zatiz erabili baino lehen, ahalmenaren edo ahalordearen iraungipena eragin duen zirkunstantzia izaten den egunean.

3. Gozamen ahalduaren edo testamendu ahalordearen figuren bidez osorik edo zatiz gauzatutako jaraunspen guztietan, ondorengo bati dagozkion eskuraketa guztiak pilatuko dira, zergaren likidazioaren ondoretarako eta Foru Arau honetan ezarritako zerga oinarriaren txikipenen aplikazioari begira.

Gainera, metaturiko likidazioen zioz aurretik ordaindutako kuotak metatzearen ondorioz egiten den likidazioan kendu ahalko dira.

33 ter artikulua. (19) Herentzia bidezko eskurapenen metaketa.

1. Kausadun batek kausatzaile jakin batengandik oinordetza beraren ondorioz lortzen dituen ondare gehikuntza guztiak herentzia bidezko eskurapen bakartzat joko dira, nahiz eta oinordetza titulu baten baino gehiagoren bidez lortuak izan.
2. Hori dela eta, jasotzen diren ondasun eta eskubide eskurapen guztiak metatu egingo dira, izan horiek eraginkortasuna unean bertan duten oinordetza itunengatik jasotakoak, izan testamentu ahalordea osorik edo partez erabili edo hura azkentzeko beste arrazoiak gertatzeagatik egindakoak, izan testamentugileak berak testamentuan zuzenean xedatutakoak, edo haren faltan, legean ezarritakoak, izan gozamendun ahalduak erabiltzeko duen ahalmenaren erabileragatik egindakoak.
3. Artikulu honetako aurreko bi ataletan aipatu diren ondare gehikuntza guztiak ondorengotza eskuratze bakartzat joko dira zerga likidatze aldera, beraz, zerga kuota zerga oinarri guztien baturaren arabera lortuko da, Foru Arau honetan araututako murrizketen artean, dagozkion zerga oinarriaren murriztapenak behin bakarrik aplikatuz.

Gainera, metaturiko likidazioen zioz aurretik ordaindutako kuotak metatzearen ondorioz egiten den likidazioan kendu ahalko dira.

33 quater artikulua.- (19) Itzulketetan likidatzeko arauak.

1. Mantenu beharra duen oinordetza itun baten bidez eskualdatu diren ondasunak eratzaileri itzultzen bazaizkio, beste likidazio bat egingo da, Foru Arau honetako 13. artikuluan aldi baterako gozamenei buruz ezarritako arauak betez, eta itzuli diren ondasunak eskualdatu zirenean egindako likidazioaren aldean gaindikirik badago, berriz, gaindikin hori itzuli egingo zaio zergadunari.
2. Itzulitako ondasunak ez dira kausatzailearen herentzian metatuko –metaketa hori Foru Arau honen aurreko artikuluan aipatzen da–, baldin eta ondasunoi artikulua honen aurreko apartatuan xedatutakoa aplikatu bazaie.

33 quinquies artikulua.- (19) (25) Alargunaren senipartea ordaintzea eta ondasunak jabari osoarekin ematea.

Kode Zibileko 839. eta 840. artikuluetan edo Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 53. artikuluan ezarritakoari jarraikiz bizirik dirauen ezkontideari edo izatezko bikoteko kideari bere senipartedun hartzekoa gozamina ez den eran edo kontzeptuan ordaintzen bazaio, adjudikatutako ondasunen edo eskubideen balio errealaren eta gozamenari esleitutakoaren baterako kopuruaren gainean tributatu beharko du, Foru Arau honen 13. artikuluko arauari jarraikiz. Horren ondorioz, jaraunsleek ez dute tributurik ordaindu beharko jabetza soilarengatik, ezta gozamina iraungitzeagatik ere -halakorik gertatzen den egunean-.

Hala ere, gozamina ez den eran adjudikatutakoaren balioa handiagoa edo txikiagoa bada bizirik dagoen ezkontide edo izatezko bikotekideari dagokiona baino, gaindikina edo diferentzia adjudikazio gaindikin gisa likidatuko da: lehenengo kasuan, jaraunsle onuradunaren edo onuradunen kontura; bigarrenean, bizirik dagoen ezkontide edo izatezko bikotekidearen kontura.

34. artikulua.- Jaraunspena edo legatua zapuztea eta berari uko egitea.

1. Jaraunspena edo legatua era garbi eta sinplean eta doan zapuztu edo berari uko eginez gero, horren onuradunek zerga ordainduko dute zapuztutako edo uko egindako zatia eskuratzeagatik, uko-egileari edo zapuzten duenari aplikatuko litzaiokeen tarifaren arabera, salbu eta tarifa garestiagoa aplikatzea bidezkoa denean, kausatzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasunarengatik.

Idatz zati hau ez da aplikatuko Foru Arau honen 7. artikuluko 1 idatz zatiko a) letraren d') letrak aipatzen dituen uko egiteen itunetan. [\(19\)](#)

2. Pertsona jakin baten aldeko gainerako ukoetan, uko-egileari eskatuko zaio Zerga. Gainera, behar den likidazioa egin ahalko da uko egin zaion zatia lagatzeagatik edo dohaintzan emateagatik.

Hala ere, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 100. artikuluko 2. idatz zatiko bigarren tartekian ezarritakoarekin bat etorriz, hirugarren baten herentziaren uko egiteko itunak badaude, ez zaio zerga eskatuko Foru Arau honen 23. artikuluko 5. idatz zatiaren arabera tributatu zuen uko egileari, hala bazegokion. [\(19\)](#)

3. Jaraunspen edo legatuari dagokion Zerga preskribatu eta gero egindako zapuzketak edo ukoak dohaintzat hartuko dira ondorio fiskaletarako.
4. [\(19\)](#) [\(25\)](#) Bizirik dirauen ezkontidearen ukoaren ondorioz ondasunen foru komunikazioaren araubidearen emaitzako ezkontza sozietateari edo irabazpidezko sozietateari dagokionez uko egindako ondasunak, Zergaren likidazioan, hildakoak utzitako ondasuntzan sar daitezten, ukoa hutsa, soila eta doakoa izan behar da eta eskritura publikoan egin behar da kausatzailea hil aurretik. Baldintza horiek betetzen ez badira, likidazioa egingo da uko egin duenak haren onuraduni dohaintza egiteagatik.

Apartatu honetan ezarritakoa izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

35. artikulua.- Dohaintza bereziak.

1. Dohaintzak kostu bidezko kausarengatik egiten direnean eta ordain gisa egiten direnean, Zerga ordainduko da kontzeptu horiengatik eta dohaintzaren zenbateko osoari dagokionez. Elkarrentzako prestaziorik badago edo dohaintza-hartzaileari kargarik ezartzen bazaio, diferentzia bakarrik kontuan harturik ordainduko da Zerga, kontzeptu berarengatik. Hala ere, Zerga ordaindu beharko da, bidezkoa izanez gero, pilotutako prestazioengatik edo kargen ezarpenagatik.
2. Biziarteko edo aldi baterako pentsioen trukean ondasunak lagatzen direnean, dohaintzetan bezala ordainduko da Zerga, ondasunen balioa pentsioarena baino handiagoa den zatiarengatik. Balio horiek Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko arauetan ezarritako moduan kalkulatu dira.

36. artikulua.- [\(11\)](#) Dohaintzak eta kostu gabeko beste eskualdaketa batzuk metatzea.

1. Dohaintza emaile batek hainbat dohaintza eta kostu gabeko inter vivos eskualdaketa egiten badizkio dohaintza hartzaile berari hiru urteko epealdiaren barruan eta eragiketok salbuetsita ez badaude, Zergaren likidaziorako eskualdaketa bakartzat joko dira, eta zerga kuota kalkulatzeko zerga oinarri guztiak batu behar dira. Metatutako dohaintzengatik eta kostu gabeko gainerako eskualdaketengatik aurretik ordaindutako kuotak metatzearen ondorioz egiten den likidazioan kendu ahal izango dira.
2. [\(19\)](#) [\(24\)](#) Aurreko apartatuan aipatzen diren dohaintzak eta parekagarriak diren gainerako doako eskualdaketak eta dohaintza emaileak dohaintzahartzailearen alde egindako edozein titulu dela bide egindako oinordetza eskualdaketak, foru arau honetan salbuetsitatzotzen diren ondasunen "mortis causa" eskuraketak izan ezik, eskuraketa bakartzat hartuko dira zerga kuota zehazteko orduan, betiere horien arteko aldia hiru baino luzeagoa ez bada. Zerga kuota kalkulatzeko, zerga oinarri guztiak batuko dira. Metatutako eskuraketengatik aurretik ordaindutako kuotak kengarriak izango dira metaketaren ondorioz egindako likidaziotik, eta horregatik ez da kuotarik itzuliko.

Aurreko paragrafoaren ondoreetarako, metaketa egiteko batu egin behar da azken eskualdaketari dagokion sortzapenaren egunaren aurreko hiru urteetan eskuratutako ondasun edo eskubideen balioa.

Aurreko artikuluan aipatutako dohaintzak edo eskualdaketak ezkontide biek ezkontza sozietatearen ondasun komunak erabiliz egin badituzte, metaketak bakarrik eragingo dio kausatzaileari egotzi ahal zaion balioaren parte proportzionalari, eta kengarria izango da dohaintzari edo parekagarria den gainerako doako eskualdaketa horri dagokion kuotaren zatia.

Metatutako eskuraketak egin ziren egunean egiaztatu zitzairen balioaren arabera konputatuko dira, nahiz eta metaketaren unean balio hori aldatuta egon.

Idatz zati honetan ezarritakoa Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturiko izatezko bikoteei ere aplikatuko zaie.

37. artikulua- (24) Bizitza-aseguruen zioz hartutako kopuruen metaketa.

1. Foru arau honen 13. artikulua 1. apartatuaren c) letran aipatzen den zerga oinarria kalkulatzeko metatu egingo dira onuradunak hildakoaren bizitza aseguru guztiengatik jasotako diru kopuru guztiak.

2. Jasotako kopuru horiek likidatu ondoren artikulua honen aurreko apartatua aipatzen den metaketa egin behar bada, beste likidazio bat egingo da metaketaren zerga oinarria kontuan hartuz, eta hortik sortzen den kuotatik metaketa egin aurretik ordaindutako zerga kuotak kendu ahal izango dira.

X. KAPITULUA

BETEBEHAR FORMALAK

38. artikulua- (8) Autolikidazioa.

1. (17) Subjektu pasiboek Foru Arau honetan aipatutako zerga egitate guztiak hartzen dituen autolikidazioa aurkeztu behar dute eta, bidezkoa izanez gero, zerga zorra ordaindu behar dute arau ezartzen diren baldintzak betez.

2. (19) Gozamen ahalduari edo testamendu ahalordeari lotutako jaraunspenetan, jaraunspenaren gozamendunak edo komisarioak zerga aitortzea aurkeztu behar du, kausatzailea zendu dela egiaztatuz. Aitorpen horretan komisarioak ezinbestean bete beharko du Foru Arau honen 38 bis artikulua ezarritakoa.

Idatz zati honetan aipatzen diren herentzietan, gozamenaren eskubideagatik eta testamendu ahalordeak edo gozamen ahalduak ukitutako ondasunegatik gozamen ahalduaz edo komisarioaz bestaldeko zergadunek ezingo dute autolikidaziorik aurkeztu, harik eta testamentu ahalordea modu ezeztazinean erabili arte –partzialki zein osorik–, edo hura azkentzeko dauden beste arazoietako bat gertatu arte.

Gozamen ahaldunaren bitartez edo komisario bidezko testamentuaren bitartez gauzatzen diren jaraunspenetan arau bidez ezarri ahalko dira gozamendun ahaldunaren edo komisarioaren bestelako betebeharrak formalak.

3. Foru Arau honetako 26. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoaren arabera eraginkortasuna etenda duten ondasun edo eskubideen eskuraketetan, eta gozamen ahaldunaren bitartez edo komisario bidezko testamentuaren bitartez gauzatzen diren jaraunspenetan, aurkezpen epeak Zerga sortzen den egunetik hasita zenbatuko dira.

4. [\(8\)](#)

5. Heriotzaren zioa eskualdaketatik eta bizi aseguruetan, auto-likidazioa aurkezteko epealdia sei hilekoa izango da kausatzailea hiltzen denetik, testamentu eragiketarik formalizatuta ez egon arren eta haien egilearen data gorabehera. [\(8\)](#)

Oinordetza hil-ondoko haurraren jaiotzaren menpe edo, kausatzailea falta delarik, hura hil delako adierazpenaren menpe badago, aurreko paragrafoan aipatutako epearen hasierako eguna, lehenengo kasuan, jaiotegunaren biharamuna izango da, edo bestela Kode Zibileko 966. artikuluan aipatutako gertaerarik baten bat gertatzen den eguna; eta bigarren kasuan, falta den kausatzailea hil delako adierazpena irmo bihurtzen den egunaren biharamuna.

Aurreko paragrafoetan aipatutako sei hilabeteko epearen ordez hamar hilabeteko epea egongo da aitortzea edo autolikidazioa aurkezteko, baldin eta kausatzailearen heriotza edo Kode Zibileko 966. artikuluan aipatutako gertaerarik atzerrian gertatzen badira.

6. Aurreko idatz-zatian xedatutakoa gorabehera, sei edo hamar hilabeteko epe hori amaitzen denean beste sei hilabeterako luzatu dela ulertuko da berez, interesdunek luzapena eskatu beharrik izan gabe; hala ere subjektu pasiboak berandutza-korrituak ordaindu beharko ditu, aurreko idatz-zatian aipatutako sei edo hamar hilabeteko epe hori amaitzen denetik hasita.
7. [\(8\)](#) Heriotzaren zioa eskualdaketen autolikidazioa aurkezteko sei hileko aparteko luzapena eman daiteke, baldin eta interesdunek aurreko idatz zatia aipatutako ohiko luzapena amaitu aurretik eskatzen badute eta bidezko kausa badela frogatzen badute. Aparteko luzapena ohikoa amaitu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuko da.

Aparteko luzapena emateko erabakiak berekin ekarriko du subjektu pasiboak likidatzen diren kuoten ehuneko 5eko errekarria eta autolikidazioa aurkezteko ohiko epealdia amaitu denetik sortutako berandutze korrituak ordaindu beharra.

Norbaitek epez kanpo aurkezten badu autolikidazioa, Zerga Administrazioak errekerimendua aurkeztu gabe, ehuneko 10eko errekarria aplikatuko zaio kuotari eta gainera berandutze korrituak eskatuko dira Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko xedapenekin bat etorriz. Zerga Administrazioak errekerimendua egin badu, Arabako Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean xedatutakoa aplikatuko da.

8. [\(8\)](#) Dohaintzen eta kostu gabeko gainerako eskualdaketen auto-likidazioak aurkezteko epealdia hogeita hamar egun baliodunekoa izango da zerga gaia gertatu eta hurrengo egunetik aurrera.

9. [\(19\)](#) Zerga honen araudiari baimena ematen zaio, hala badagokio, autolikidazioak aurkezteko epeak egoki ditzan euskal zuzenbide zibilari darizkion berezitasunen arabera.

38 bis artikulua.- [\(19\)](#) Komisarioaren betebeharrak testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan.

1. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahalduaren menpeko jaraunspenetan, komisarioak 6 hilabeteko epea du, kausatzailea hiltzen den egunetik aurrera edo Kode Zibilaren 196. artikuluan ezarritakoaren arabera heriotza adierazpenak irmotasuna hartzen duenetik aurrera, jaraunspenetako ondasunen inbentarioa eta ahalordearen frogagiriak aurkezteko. Gainera, Zerga Administrazioak egoki irizten duen beste edozein agiri aurkezteko eskatu diezaike.

Komisarioak Zerga Administrazioari jakinarazi behar dizkio testamentu ahalordea baliatzearen zain dagoen jaraunspeneko ondare elementuen inbentarioan gertatzen diren aldaketak, baldin eta ondare aldaketa horiek ez badute Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena eragiten. Komunikazio hori ondare aldakuntza gertatzen denetik hilabete igaro aurretik aurkeztu behar da; berarekin batera, aldakuntzaren frogagirien kopiak aurkeztu behar dira.

2. Era berean, hilabeteko epean, testamentu ahalordea modu ezeztazinean –hala partzialki nola osorik– erabiltzen den egunetik edo hura iraungitzeko arrazoietako bat gertatzen den egunetik aurrera, komisarioak aurreko alderdi horien berri eman behar dio Zerga Administrazioari, eta ahalordea erabili dela egiaztatzeko dokumentazioa ere aurkeztu behar dio, edo, bestela, ahalordea iraungi dela justifikatu.
3. Artikulu honetan ezarritakoa gozamendun ahalduari ere izango zaio aplikagarri.

39. artikulua.- Agintarien, funtzionarioen eta norbanakoen eginbeharrak.

1. Epai-organoek hilero, lehenengo hamabostaldian, Arabako Foru Aldundiari bidaliko diote betearazitako epaitzen edo epai irmoen zerrenda, baldin eta horietatik ondorioztatzen bada Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kargapeko ondare-gehikuntzak izan direla.
2. Erregistro Zibileko arduradunek hilero, lehenengo hamabostaldian, Arabako Foru Aldundiari bidaliko diote aurreko hilean hildakoen eta haien helbideen zerrenda izenduna.
3. [\(25\)](#) Notarioak behartuta daude beren eginkizunak betetzen esku hartu duten egintzei buruz Foru Aldundiak eskatzen dizkien datuak ematera, eta baimentzen dituzten edo beren protokoloan dauzkaten dokumentuez hark eskatzen dizkien kopiak hamabost eguneko epean doan ematera, salbu Notariotzari buruzko 1862ko maiatzaren 28ko Legearen 34. eta 35. artikuluetan aipatzen diren tresna publikoak eta ezkontza gaietako buruzkoak edo izatezko bikoteei buruzkoak direnean, ezkontza sozietatearen araubide ekonomikoari eta ondarearen araubide ekonomikoari, hurrenez hurren, dagozkionak izan ezik.

Halaber, hiruhileko bakoitzaren lehenengo hamabostaldiaren barruan, zerga honen kargapeko egitatea osatzen duten ondare-gehikuntzak sor litzaketan egintza edo kontratuei dagozkien eta aurreko hiruhilekoan baimendu diren dokumentu guztiak

jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea bidali behar dute. Gainera, epe berean bidali beharko dute adierazitako edukia duten agiri pribatuen zerrenda, baldin eta berauek ezagutzeko edo sinadurak legebideztatzeko aurkeztu bazaizkie.

Gainera, notarioek, hil bakoitzeko lehen hamabost egunen barruan, zerrenda bat bidali behar diote Arabako Foru Aldundiari, eta bertan adierazi aurreko hilean baimendu dituzten testamentuetatik zeinetan erabili duen herentzia baten komisarioak testamentu ahalordea edo gozamen dun ahalmena modu ezeztazinean; orobat, bertan zehaztu behar dute komisarioa edo gozamen dun ahalduna nor izan den eta zein den ahalordea erabiltzea ekarri duen herentziaren kausatzailea. Notarioek baimendutako agiri guztien artetik testamentu ahalordea erabilia dutenak baino ez dira agertu behar zerrenda horretan, are ahalordea gozamen dun ahaldu naren edo komisarioaren testamentuan erabili denean ere. [\(19\)](#)

Era berean, notarioek, aurreko paragrafoan ezarritako epealdi berean, Arabako Foru Aldundiari ezinbestean igorri beharko diote Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 43. artikulua k aipatutako testamentu ahalordearen jardunaren menpeko herentziaren ondasunen komisarioaren edo gozamen dun ahaldu naren xedatze egintzei buruz beraiek baimendutako dokumentu guztien zerrenda bat. [\(19\)](#)

4. Arabako Foru Aginduak berariaz baimena eman ezean, epai-organoek, finantza-bitartekariak, elkarteak, fundazioak, sozietateak, funtzionarioak, norbanakoak eta gainerako erakunde publiko zein pribatuak ezin izango dute erabaki ondasunak beren titularrak ez direnei ematea, Zergaren ordainketa edo salbuespena aurretik frogatzen ez bada.
5. [\(8\)](#) 38. artikuluan aipatutako autolikidazioa aurkeztu dela eta ordainketa gutunaren bitartez sarrera egin dela frogatu ezean, aseguru erakundeek ezin likidatu izango dituzte bizi aseguruak, ez ordaindu.
6. Aurreko zenbakietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badira, zehapena jarriko da Foru Arau honetako 47. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Jurisdikzioko organoen kasuan, Arabako Foru Aldundiak gertaeren berri emango dio Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiari fiskaltzaren bitartez, bidezko ondorioetarako.

40. artikulua.- [\(8\)](#) Ez aurkeztearen ondorioak.

Zerga honen kargapeko egintzak edo kontratuak jasotzen dituzten agiriak ez dira onartuko bulego eta erregistro publikoetan, eta ez dute inolako ondoriorik sortuko, baldin eta aurretik ez bada frogatzen administrazio eskudunari zerga zorra ordaindu zaiola edo egintza edo kontratua kargatik salbuetsita dagoela (edo ez dagoela agiria halakoetan aurkeztu beharrik). Administrazio interesdunari berehala jakinaraziko zaizkio gorabeherak.

Auzitegiek eta epaitegiek Zerga likidatzeko eskumena daukan administrazioari haren aurrean likidaziora aurkeztu izanaren oharrik ez duten dokumentuen kopia baimenduak igorriko dizkiote, egintzaren berri dutenetik hilabete pasatu baino lehen.

Idatz zati honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Zerga ordaindutzat joko da agiriarekin batera ordainketa egin dela jasotzen duen Zergaren autolikidazioa aurkezten bada.

Erregistratzaileak eskualdatutako ondasuna edo eskubidea likidazioaren edo likidazio osagarriaren ordainketari atxikita dagoela agerraraziko du bazterreko oharra eginez.

[\(9\)](#) Bazterreko oharra ofizioz egingo da. Egindako likidazioaren ordainketa gutuna aurkezten denean ondorerik gabe geldituko da eta indargabetu egin beharko da. Gauza bera gertatuko da egiten denetik lau urte pasatutakoan.

XI. KAPITULUA

ZERGAREN KUDEAKETA

1. ATALA

AUTOLIKIDAZIOA [\(8\)](#)

41. artikulua- [\(8\)](#) Arau orokorrak.

Oinordekotza eta Dohaintzen gaineko Zergaren kudeaketa Arabako Foru Aldundiari dagokio. Foru Aldundiak gauzatuko du eskumen hori, Ogasun Zuzendaritzako zerbitzu egokien bidez.

42. artikulua- [\(8\)](#) Konturako autolikidazio partzialak.

1. Jaraunspenezko oinordetzetako interesdunek Zergaren auto-likidazio partziala egin ahal izango dute, baina kausatzailearen bizi aseguruak, kredituak eta sortu ondoren kobratu gabe utzi dituen hartzeak kobratzeko eta gordailatuta dauden ondasunak, baloreak, gauzak edo dirua jasotzeko bakarrik.
2. Autolikidazio hori nola eta zein epealditan egin behar den eta zer ondorio edukiko dituen arau bidez zehaztuko da, bai eta interesdunek diru kopuruak kobratzeko eta gordailatutako dirua edo ondasunak berenganatzeko bete beharrekoak ere.
3. Autolikidazio partziala, inolako murrizpenik gabe, jaraunspenezko oinordetzaren behin betiko autolikidazioaren kontura egindako sarreratzat hartuko da.

2. ATALA

ZERGAREN ORDAINKETA

43. artikulua.- Zergaren ordainketa.

1. [\(8\)](#)
2. Dokumentua aurkezten duena, aurkezteagatik bakarrik, Zerga ordaintzera behartuta daudenen ordezkari izango da. Horrela, aurkeztu duen dokumentuaren haritik egiten zaizkion jakinarazpen guztiek, bai eta sinatzen dituen diligentziek ere, interesdunekin beraiekin zuzenean egin izan balira bezalakoxe balioa eta ondorioak izango dituzte.
3. Salbuespen gisa, Zerga Administrazioak zerga-zorra ondasun edo eskubideen bidez ordaintzea onar dezake, betiere beharrezkotzat jotzen dituen txostenak aztertu ondoren.

3. ATALA

ORDAINKETA GERORATZEA ETA ZATIKATZEA

44. artikulua.- Arau orokorra.

Atal honetako hurrengo artikuluetan xedatutakoa eragotzi gabe, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari aplikatu ahal izango zaizkio lurralde historiko honetan ordainketa geroratzeari eta zatikatzeari buruz indarra duten arauak.

45. artikulua.- (8) Administrazioak geroratzea edo zatikatzea.

1. Heriotzaren zioz egindako autolikidazioen ordainketa gehienez ere urtebete geroratzea erabaki ahal du Zerga Administrazioak, baldin eta likidatutako kuotak ordaintzeko ondasunen inbentariarik ez badago edo erraz diru bihur daitezkeen ondasunak nahiko ez badira, betiere, ordaintzeko arauzko epealdia amaitu aurretik eskatu beharko da gerorapena. Gerorapena onartzeak bidezko berandutze korrituak ordaindu beharra ekarriko du.

Era berean, jabetza soileko jaraunspen edo legatuarengatik likidatutako kuoten ordainketa jabaria bateratu arte geroratzea ere erabaki ahal izango du Zerga Administrazioak, baldin eta betebeharrak formalak betetzen badira, aurreko paragrafoan adierazitako epealdian eskaera egiten bada, interesdunak adierazten badu kuotak ordaintzeko behar adina ondasun ez duela eta ordainketa bermatu ahal bada legezko hipotekaren, beste ondasun batzuen gaineko hipoteka bereziaren edo banku fidantza solidarioaren bitartez.

2. Kasu eta baldintza berberetan Zerga Administrazioak ordainketa gehienez bost urtekotan zatikatzea erabaki ahal izango du, ordainketa arauz ezartzen den bezala bermatuz gero.
3. Halaber, oinordetzaren kausadunak ezagunak izan arte ordainketa geroratzea erabaki ahal izango da, aurreko idatz zatian aipatutako baldintzak betetzen badira.

46. artikulua.- (8) Geroratzeko eta zatikatzeko kasu bereziak.

1. Industrian, merkataritzan, eskulangintzan, nekazaritzan edo lanbide jardueraren batean diharduen banako enpresaren bat edo Ondarearen gaineko Zergari buruzko foru arauaren 4. artikuluko Hamar idatz zatiko 2. puntuaren arabera den salbuespena aplikatu ahal zaien erakundeetako partaidetzak jaraunspenez, legatuz edo dohaintzaz eskualdatzen direnean eta horren ondorioz egindako autolikidazioak ordaindu behar direnean, ordainketa geroratu ahal izango da, zergapekoak eskaera egiten badu ordaintzeko arauko epea amaitu aurretik. Ordaintzeko epealdia amaitzen den egunaren ondorengo bost urteetarako onartu ahal izango da gerorapena. Behar adinako bermea eratu beharko da, eta gerorapenaldian ez da ordaindu beharko berandutze korriturik.
2. Bost urteko epealdia amaitutakoan, aurreko baldintza eta beharkizun berak betetzen badira, ordainketa sei hileko hamar epealditan zatikatu ahal izango da. Aldi horretan berandutze korrituak ordaindu beharko dira.
3. Ordainketa geroratzeari eta zatikatzeari buruzko aurreko idatz zatietan xedatutakoa aplikagarria izango da, halaber, ohiko etxebizitza jaraunspen bidez eskualdatzearen ondorioz egindako autolikidazioak ordaindu behar direnean, baldin eta kausaduna kausatzailearen alboko ahaidea bada, hirurogeita hamabost urte baino gehiago baditu eta kausatzailea hil aurreko bi urteetan harekin bizi izan bada.
4. Bizitza aseguruetan, kausatzailea aldi berean kontratatzailea edo aseguraturia bada aseguru kolektiboan, eta seguruaren zenbatekoa errenta moduan jasotzen bada, Zergaren ordainketa zatikatu egingo da, onuradunak eskatuz gero, pentsioa zenbat urtetan jaso behar den, hainbat urtetan, biziartekoa bada, erreskaterako eskubidea erabiltzen ez den artean.

Gerorapen horretarako ez da inolako bermerik eratu beharko eta ez da inolako korritu tasarik aplikatuko.

Pentsioa iraungiz gero, ordaintzeko geratzen diren zatiak ezingo dira eskatu. Erreskaterako eskubidea erabiltzen bada, aldiz, eskatu ahal izango dira.

Idatz zati honetan xedatutakoa aplikatzeko prozedura arau bidez finkatuko da.

XII. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

47. artikulua.- (19) Zehapen araubidea.

1. Artikulu honen hurrengo idatz zatietan ezarritakoari kalterik egin gabe, Foru Arau honetan araututako zergaren arau hausteak zehatuko dira Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauak eta arauko garapen xedapenek ezarritakoaren arabera.

2. Ondasun edo eskubideen eskurapen salbuetsiengatik egiten diren autolikidazioak edo murriztapenak aplikatuta egiten direnak epez kanpo aurkezten badira, eta haien zenbatekoa zerga oinarriaren berdina edo handiagoa bada, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.
3. Testamentu ahalordearen edo gozamen ahaldunaren bidezko herentzien komisarioari edo, hala badagokio, gozamendun ahaldunari Foru Arau honetako 38. artikuluan ezarritako betebeharrak berariaz araututako epean ez betetzea zerga alorreko arau haustetzat joko da, eta honako arau hauen arabera zehatuko da:
 - a) Komisarioak edo, hala denean, gozamendun ahaldunak ez badu aurkezten herentziako ondasunen inbentarioa edo inbentarioan izandako aldaketen dokumentazioa –aldaketa horrek zergaren sortzapena ekarri gabe–, edo ahalordearen frogagiria, 600 euroko diruzko isun finkoa ezarriko da.
 - b) Salbuetsitako eskurapenetan, edo aplikatutako murriztapenak zerga oinarriaren parekoak edo handiagoak dituzten eskurapenetan, ez bada jakinarazten testamentu ahalordea erabili dela edo hura azkentzeko beste arrazoietako bat gertatu dela, eskuratutako ondasun eta eskubideen balio garbiaren 100eko 0,1eko diruzko isun proportzionala ezarriko da; isuna, zergadun bakoitzeko, 600 eurokoa izango da gutxienez, eta 9.000 eurokoa gehienez.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. [\(15\)](#) Foru Arau honetako 13. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, aitortutako balioa hartuko da kontuan eta ez egiaztatutako balioa, salbu eta eskualdaketa-data 1992ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoa duten eskuraketetan.

Bigarrena. [\(15\)](#)

1. Foru arau honetan xedatutakoaren ondorioetarako, ondokoak parekatuko dira:
 - a) Betirako hartzen diren edo adopzio aurretik hartzen diren pertsonak eta adoptatutakoak parekatuko dira, betiere, lege zibilek finkatutakoarekin bat etorritik aurretik adoptatu badira.
 - b) Betirako hartzen dutenak edo adopzio aurretik hartzen dutenak eta adoptatzen dutenak parekatuko dira, betiere, lege zibilek finkatutakoarekin bat etorritik aurretik adoptatu badute.
2. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako parekatzeak, zerga honen elementu guztietan aplikatuko dira.

Hirugarrena. [\(19\)](#) [\(25\)](#) Testamentu-ahalordea noiz baliatuko zain dauden oinordetzen eta unean bertan eragina duten oinordetza-itunen araubide iragankorra.

1. Ezkontide edo izatezko bikotearen, odol bidezko aurreko zein ondorengo zuzeneko ahaide edo adoptatzaile zein adoptatuen herentziazko eskuraketan kasuan, baldin

eta testamentu ahalordeen edo botere osoko gozamenaren ahalmenen erabilera partzialaren ondoriozkoak izan badira eta 2013ko abenduaren 17an edo egun horretatik zenbatzen hasita sei hileko epean iraungi ez badira edo guztiz erabili ez badira, metatu egingo dira oinordeko berari dagozkion kausatzaile beraren eskuraketa guztiak, eta eskuraketok bakarrik hartuko dira Foru Arau honetan araututako murrizketak behin bakarrik aplikatzeko. Eskuraketa horien ondoriozko ondasun eta eskubideen balioa haiek sortu zirenekoa izango da.

2. Inola ere ez dira eskuraketak metatuko kausatzaile eta oinordeko berari dagozkien beranduagoko sortzapenen zerga oinarriak handitzeko.
3. Berdin jardungo da 2013ko abenduaren 17a baino lehen sortu eta unean bertan eragina duten oinordetza itunen kasuan.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Foru Arau honek indarra hartzen duen egunetik aurrera sortuko diren zerga-egitateei aplikatuko zaizkio bertako xedapenak. Lehenago sortutako zerga-egitateak lehenago legeriaren bidez arautuko dira.

Bigarrena.- 1962ko azaroaren 29ko Lege Dekretuak aipatzen dituen industri eta negozio bankuetako kutxa-bonuen jaraunspen, legatu edo dohaintza bidezko eskuraketak salbuesita egongo dira, baldin eta kausatzaileak edo dohaintza-emaeleak 1987ko urtarrilaren 19a baino lehen eskuratu baditu eta bere ondarean eduki baditu eskualdaketa egunaren aurreko bi urteetan, gutxienez.

Aurreko paragrafoan aipatutako tituluak amortizatuz gero, amortizazioaren emaitza berriro inbertitu ahal izango da industri edo negozio bankuetako beste kutxa-bonu batzuetan, salbuespenerako baldintza guztiak bete ahal izateko edo salbuespenerako eskubideari eutsi ahal izateko.

Hirugarrena.- [\(17\)](#) 1988ko urtarrilaren 1a baino lehenago kontrataturiko polizei 1987ko abenduaren 31n indarra zuen arautegia aplikatuko zaie.

Laugarrena.- Foru Arau honetako 3. artikuluko 1. idatz-zatiko bigarren arauan xedatutakoa eragotzi gabe, zergadunak bere interesgune nagusia Araban duen ala ez zehazteko orduan ere ez dira kontuan hartuko martxoaren 17ko 8/2003 Foru Arauko lehenengo eta bigarren xedapen iragankorretan xedatutakoari jarraikiz egotzitako oinarriak, zerga-gardentasun profesionaleko araubideari atxikitako sozietateei dagozkienak izan ezik; foru arau horren bidez Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergako, Sozietateen gaineko Zergako, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergako, Ondarearen gaineko Zergako, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergako, Interes Orokorreko Jardueretan Partaidetza Pribatua Sustatzeko Zerga-pizgarrietako eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko hainbat manu aldatu dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru Arau honek indarra hartzen duenean indargabetu egingo dira harekin bat ez datozen xedapen guztiak, besteak beste Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergari buruzko apirilaren 24ko 25/1989 Foru Araua.

Nekazaritzarekin zerikusia duten zerga-neurriei buruzko uztailaren 9ko 17/1997 Foru Arauan dauden zerga-onuretatik gaur egun indarra dutenek indarrean iraungo dute.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Indarrean jartzea.

Foru Arau honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Bigarrena.- Araugintzarako gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiak Foru Arau hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emango ditu.

OHARRAK

- (1) 38/2005 Foru Araua, urriaren 17koa.
(ALHAO, 123. zk., 05-11-2koa gehigarria).
- (2) 57/2005 Foru Araua, abenduaren 19koa.
(ALHAO, 148. zk., 05-12-30ekoa gehigarria).
- (3)
- (4)
- (5) 22/2007 Foru Araua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 154. zk., 07-12-31koa, gehigarria; ALHAO, 2. zk., 08-1-4koa, gehigarria;
ALHAO, 7. zk., 08-1-16koa gehigarria).
- (6) 14/2008 Foru Araua, uztailaren 3koa.
(ALHAO, 79. zk., 08-7-11koa gehigarria).
- (7) 21/2008 Foru Araua, abenduaren 18koa.
(ALHAO, 149. zk., 08-12-29koa, gehigarria; ALHAO, 7. zk., 09-1-16koa
gehigarria).
- (8) 14/2009 Foru Araua, abenduaren 17koa.
(ALHAO, 149. zk., 09-12-30ekoa gehigarria).

- (9) 15/2010 Foru Araua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 147. zk., 10-12-29koa gehigarria).
- (10) 19/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa.
(ALHAO, 153. zk., 11-12-30koa gehigarria).
- (11) 18/2011 Foru Araua, abenduaren 22koa.
(ALHAO, 153. zk., 11-12-30koa gehigarria).
- (12) 8/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa.
(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa gehigarria).
- (13) 9/2013 Foru Araua, martxoaren 11koa.
(ALHAO, 34. zk., 13-3-20koa gehigarria).
- (14) 13/2013 Foru Araua, apirilaren 15ekoa.
(ALHAO, 48. zk., 13-4-26koa gehigarria).
- (15) 32/2013 Foru Araua, azaroaren 27koa.
(ALHAO, 144. zk., 13-12-16koa gehigarria).
- (16) 20/2014 Foru Araua, ekainaren 18koa.
(ALHAO, 72. zk., 14-6-27koa gehigarria).
- (17) 22/2015 Foru Araua, abenduaren 29koa.
(ALHAO, 152. zk., 15-12-30koa gehigarria).
- (18) 19/2016 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 147. zk., 16-12-30koa gehigarria).
- (19) 18/2017 Foru Araua, irailaren 20koa.
(ALHAO, 112. zk., 17-9-29koa gehigarria).
- (20) 2/2018 Foru Araua, martxoaren 7koa.
(ALHAO, 32. zk., 18-3-16koa gehigarria).
- (21) 3/2018 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, urriaren 23koa.
(ALHAO, 125. zk., 18-10-31koa gehigarria).
- (22) 34/2021 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 146. zk., 21-12-29koa).
- (23) 24/2022 Foru Araua, abenduaren 23koa.
(ALHAO, 150. zk., 22-12-30koa).
- (24) 26/2023 Foru Araua, abenduaren 22koa

(ALHAO, 150. zk., 23-12-29koa)
- (25) 19/2024 Foru Araua, abenduaren 20koa.
(ALHAO, 147. zk., 24-12-30koa).

(26) 3/2025 Foru Araua, apirilaren 9koa.
(ALHAO, 44. zk, 25-04-16koa).